

 **ARGIA**

PIZ KUN DEA

***Zein izango dira gakoak
hemendik aurrera?***

EUSKARAREN ETORKIZUNAZ SEI EUSKALTZALEREN IRITZIAK

2944 | 2025 / 12 / 21 | 4 €

02944
9 778402 139093



***Eskuin muturretik
bideraturiko
migrazio-politika***

12 | EUROPA



***"Niretzat sekulakoa da
'marikoneoa' existitzea
euskaraz"***

14 | ONINTZA LEGORBURU



***Pentsalari handia
omendu eta irakurri
dute Durangoko Azokan***

46 | JOXE AZURMENDI

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #313
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



**OTSOA BABESTU,
ABELTZAINZA ESTENTSIBOA LAGUNDU**

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | IÑAKI ETAIO

Finkoak

- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


AZALEKO MUNTIA: **DANI BLANCO**

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA



32 | **TRANSIZIO ENERGETIKO KOLONIALA**

Trantsizio energetikoak hartu du lehen lerroa, baina, hau trantsizio bat al da? Ekologikoa al da? Argi dagoen bakarra da koloniala dela. Orain arteko logika estraktibistaren jarraipena da eta material horien jatorrizko herrietan eragin suntsitzailerik ikaragarria du. Ipar globalaren erosotasuna justifikatzen jarraituko dugu? Hego globalaren lurra eta bizimodua suntsitzen jarraituko dugu? Alexandra Bermudez, Zenayda Serrano eta Dalila Argueta ekintzaileek Kinka sareak antolatutako topaketetan esandakoen lagin bat jaso du Eli Pagolak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

'Make Europe great again' ideologiari tiraka, gogortuz doa Europaren migrazio-politika

Jenofa Berhokoirigoin

14 | JENDEAK | ONINTZA LEGORBURU

"Ikusi behar dugu hizkuntzak noiz jokutzen duen rol estrategikoa, eta noiz ez"

Danele Sarriugarte

24 | EUSKAL PIZKUNDEA

Zer behar dugu indarraldirako?

Onintza Irureta

36 | INTERNET | AMADEU ABRIL

"Hizkuntza gutxituetako komunitateak tematiak izan behar dira, existitzen direla erakutsi behar dute"

Eneko Imaz

46 | JOXE AZURMENDIRI AITORTZA

Xentimoka pentsatzen dutenen omenaldi laikoa

Gorka Peñagarikano

48 | ZINEMA

Pertsona normal bat Almandozen bisaiait: kalamidade baten kontakizuna

Maria Ortega

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Beñat Badiola, Ekain Carrasco, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga.

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Kortza

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GIUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500064


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Erantzuna

Atzekoz aurrera gabiltza. Zestoan (Gipuzkoa), bost herritarrek indarkeria matxistaren biktima bat babestu dute. Erasotzaileak salaketa jarri die derrigortzea eta integritate moralaren aurkako delituak leporatuta. Salaketa epaiketara ailegatu egin da. Erasotzailea biktima bihurtu da, eta biktimari (bikotekide ohiari) elkartasuna adieraztea, salagarri. Sistema judizial patriarkala agerian. Herriaren eta mugimendu feministaren erantzuna, erraldoia: plaza bete zestoar eta bailarako herritar, ia 30 eragileren babesa, baita ondoko herrietako talde feministen elkartasuna ere.



DA DELITUA
GAUDE !!

Anparo Arangoa biktima gisa aitortu du Nafarroako Gobernuak

 URKO APAOLAZA AVILA



JAVIER YABEN / ARGIA CC-BY-SA

1 976an guardia zibilek modu basatian torturatu zuten Anparo Arangoa leitzarrari argazkiak atera zizkieten ospitalean. Torturaren lehen irudi horiek mundu osora zabaltu ziren *Zeruko Argia*-ren bidez. 50 urteren ondoren, Nafarroako Gobernuak errekonozimendua eta erreparazioa eman die bere senideei, ARGIAri jakinarazi diotenez. Orotara zazpi pertsona aitortu ditu oraingoan Espainiako Estatuaren bortizkeriaren biktima gisa.

Anparo Arangoa Satrustegi leitzarrari motibazio politikoko indarkeriaren biktima izaera aitortu dio Nafarroako Gobernuak. Senideek egindako eskaera aintzat hartu du Errekonozimendu eta Erreparazio Batzordeak, eta hala, 1976an Tolosako kuartelean guardia zibilek modu basatian torturatu zutenetik ia 50 urte igaro direnean, biktima gisa aitortu eta indemnitzazio txiki bat eman die. Arangoa 1991n hil zen.

Bere kasua mundu osoan egin zen ezagun, torturen ondorioz ospitalean ingresatuta zegoela Javier Yaben sindikalistak argazkiak atera eta Patxi Zabaleta abokatuaren laguntzarekin *Zeruko Argia*-n publikatu zituztenean, eranskin gisa eta koloretan, zentsurari aurre egin da. Tortura frogatzen zuten lehen irudi horiek *The Times*-en atera ziren eta Amnistia Internazionalak bere txostenean aipatu zuen.

“Pentsatzen genuen onartuko zutela, beste aitortza batzuk ere izan direlako eta gure kasua argi xamar zegoelako: argazkien frogua genuen, medikuen txostenak...”, azaldu dio ARGIAri Jon Arangoa ilobak. Istanbulen protokoloaren baldintza zorrotzak bete behar izan dituzte neba-arrebek, besteak beste, psikologoaren aurrean gogorarazi dute orduan gertaturikoa. Egun horietan, Juantxo eta Pako anaiak ere atxilotu zituen Guardia Zibilak, eta azkeneko hori ere torturatu egin zuten Tolosan, arreba ondoan zuela. “Prozesu gogorra eta nekeza izan da guztientzat”, esan du Jon Arangoak.

Nafarroako Torturatuen Sareak abian jarritako ikerlana izan da biktima izaera eskatzeko akuilu senideentzat. Sare horrek torturatuen kopuruak eta kasuak biltzen dihardu eta, tartean, Arangoarena ere landu dute, Nafarroan garai hartan poliziek eta guardia zibilek militante politikoei eta herritarrei egin zizkieten tortura ugarien barruan.

Lehen aldiz, Nafarroako erakunde batek Arangoa ofizialki aitortu du biktima gisa –Kriminologiaren Euskal Institutuak EAerako egindako txostenaren bidez aitortza “sinboliko” bat izan zuen– eta erreparazio ekonomikoa eman die senideei. Batzordea osatzen duten kideek “aho batez” hartu dute erabakia, hedabide honek eskuratu ahal izan duen erresoluzioan irakurri daitekeenez. ●

MOTZEAN

Gasteizko Askabide klinikaren aurrean manifestatu ziren 21 antiabortistak absolutu dituzte, “modu baketsuan” bildu zirela ebatzita.

Petronorreko istripu baten ondorioz, airearen kutsadura maila handitu da Muskizen.

Greba orokorra deitu dute sindikatuek martxoaren 17rako Hego Euskal Herrian, gutxieneko soldata propioaren alde.

Arabako zahar egoitzek lehen hitzarmen propioa lortu dute sei urteko borrokaren ostean.

Ipar Euskal Herriko laborariek autobidea moztu dute, dermatosiaren aurkako neurrien kontrako protestetan.

Josu Urrutikoetxeak libre jarraituko du, Espainiako Auzitegi Nazionalak berau espetxeratzeko emandako euroagindua baztertuta.

2024ko Eurovisioneko irabazleak, Suitzako Nemo artistak, saria itzuli du, Israelen lehiaketan jarraitzen duela salatzeke.

Diktaduraz geroztik Txilen boterera iristen den lehen ultraeskuindarra izango da José Antonio Kast, hauteskundeak irabazita.

BERRIKETA GUTXI

Erreklamazio-orri



IMANOL EPELDE
PAGOLA
27zapata.eus

Komunikazioaren gizartea, nekearena, indibidualismoarena. Modu askotara bataiatu izan da gaur eguneko gizartea: jakinarazpenena, produktibitatearena, algoritmoarena. Nik beste bat proposatu nahi dut: kexarena.

Kafea ez digute atera normalean bezain azkar, ez beltz eta ez bero; autobide sarreran trafikoa jasan-gaitza da, eta kopilotuak ozenegi hitz egiten du. Gaur, Eguberrietan argi gehiegi pizten direla dio, atzo, aurren inoiz baino beranduago piztu dituztela. Berdin du: hemen kontua kexatzea da, ez arrazoia izatea.

Egun osoa pasatzen dute kexaka oposizioan dauden alderdiek. Kexu dira gobernuan daudenak ere: ezin dute egin nahiko luketen guztia. Jakina da: egoera globalak ez du laguntzen, oposizioak ere ez. Sindikatuak asko kexatzen dira. Gehiegi. Enpresariak gehiago: langileen soldatekin enpresak ez dira konpetitiboak. Pentsa, Donald Trumpek ere kexatzen pasatzen du eguna: zer ez luke egingo mundua bere eskutan balego!

Kexa kutsatu egiten da, gainera. Eskola atarietan esaterako, gure ereduari tiraka, erraz topatu daitezke kexaren gizartearen seinaleak: "Ama, gaur janaria oso txarra zen jangelan", "Aita, aspertuta nago eta biharko etxeko lanak eman dizkigute".

Gurasoak hotzagatik kexatzen gara, edo beroagatik, berdin du: irakasleak emailari momentuan ez diolako erantzun edo umea ezin dugulako gainera askatu arratsalde osoan. Gurean txakurra da kexatzen ez den bakarra, eta hori ere ez dakit. Azkenaldian, haren begiradak ere badu zer bait: "Ez nauzue paseatzera behar bezainbeste ateratzen", esan nahiiko balu bezala.

Nik ere ikasturtea hasi zenetik artikulua asko egin ditut kexa betean. Errazagoa baita esatea mundua hankaz gora dagoela, pixka bat galduta nagoela aitortzea baino. Azken batean, hemen nahi duenak, nahi duenerako, beti ditu eskuragarri erreklamazio-orriak.

Alde ederrean nengoke eskerrik asko batekin hasiko banitu egun guztiak. Ez mundua ondo dabilako; ondo dakigu ezetz. Baina, merezi du egun bakoitzak eskerrik asko bat. Atzokoa joan zen, biharkoa ez da heldu eta gaurkoa da bizitzen ari garen mirari bakarra. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

La Sinsorga




ULA IRURETAGOIENA

Niri ere gertatu zait. Eraikuntza lana mugatzen duen metalezko hesiaren zurtaina hormigoizko blokearen zutik atera, zirrikitutik barnera sartu, bertako langilearekin eraikuntzako neurri eta zehaztapenak ematen hasi, eta esaten dudanari entzungor egin, serio ez hartu. Gutxiespena, kuestionamendua, mesprezua, aintzakotzat ez hartzea. Emakume baten aginduek leku zaila topatzen dute adreiluen artean, lekuz kanpo sentiarazi arte. Eskuen ekintzek agintzen dute lan-giroa, hierarkikoa da (arduradunak, peoiak), izenik gabeko langileak daude, ordu txikitari hasten da lanean, ordainsari prekarioekin ordaintzen da eta jatorri desberdineko pertsonen konfigurazioak osatzen du.

Udazkeneko euskal zinemagintzaren uztan, eraikuntzako sektorea hizketagai duen dokumental bat daukagu: *Llámame Sinsorga*, Marta Gomez eta Paula Iglesias zuzendari. Bilboko Alde Zaharrean kokaturiko La Sinsorga kulturgune feministaren eraikinaren zaharberritze lanen komeriak filmatu dituzte. Eraikuntzaren eraldaketa lanen garapena jasotzearekin batera, obra baten harremantze-moduak eta izaera dokumentatu dituzte.

Obra txiki baten prozesua liskartsua da ia beti, gremio desberdin askok parte hartzen dutelako, eta koordinazioan abilezia berezia behar da gremio bakoitzaren interesak adiskidetu eta lankidetzat sustatzeko, askotan nork bereari eusten diolako. Tentsioa denboren luzapenak eta aurrekontu igoerek ekartzen dute. Bitartean, espazioa hautsez, zikintasunaz, desordenaz eta zaratat betetzen da.

La Sinsorga emakume sustatzaileen proiektua izanik eta eraikuntzako emakume langileek pairatzen dituzten zailtasunen jakitun, eraikuntza lanak emakumeekin bakarrik egiteko helburuarekin abiatu zuten proiektua. Emakumeentzako espazio bat emakumeek fisikoki eraiikia. Egiatzatu dute oraindik orain ez dela posible eraikuntza lana osorik emakume langileekin burutzea eta eraikuntzaren sektorearekin harremanak eskarmentu handia utzi die, kapital sinboliko handia mugitzen den lan eremua baita. ●



Populismoa korrika

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Bi bide behintzat bazeuden: edo busti eta arriskatu, edo lehorretik ibili eta segurura jo. AEK-k 24. Korrikan aldarrikatuko badu euskara “denontzako aterpe irekia” izango dela, hala pentsatu eta aurrez abisatuta bazeukan, ja terrenoa prestatuta zeukan bigarren bideari ekiteko. Asmoak konfirmatu ditu iragan ostegunean, kantua aurkeztuta.

Esaldi solteak; gorazarre eta omenaldiak batari eta besteari, hala nola aurtengo omenduari, Errigorari (biba!); eta lauburu, ilargi, marea, arrano, irrintzi, sorgin eta basurdeak aipatu besterik. Iruditeria bat sortzeko asmoz seguru, baina kantuak ez du apartekorik esaten, ezer gutxi kontzientzia eta militantzia euskaltzaleari lot ahal zaizkionak. Eta bada ulertzen ez den gauzarik. Esaterako, zergatik pertsonifikatu den hainbeste horrelako ekintza kolektibo baten bideoklipa. Eta batez ere, haxe: zergatik ipintzen diren katalanezko azpitoluak euskarazkoaren eta gaztelaniazkoaren ondotik, ez badira, gero, frantsesezkoak ipintzen. Ez dirudi AEK-ren kontua denik, Zetak-ek bere azken bideoklipetan hala egin baitu. Baina harritzeko modukoa da, *Xiberutikan Mendebaldera* deituriko kantuan nolatan uzten den kanpoan euskara eta gaztelania ulertzen ez dituen zuberotarra, are, enkargugilea AEK izanda, helburutzat duena geroz eta erdaldun gehiago euskarara gerturatzea.

Apustu erraza zen bi Nafarroa Arena, lau Illunbe eta bi San Mames betetzeko gai den taldeari kantua eskatzea, eta hark onartzea. *Petatuko* du kantuak, ez da dudarik. Zetak-ek jendetza mugitzeko gaitasun handia du, fenomeno bat da, eta litekeena da aurtengo Korrikako kantua aspaldiko entzunena izatea. Eta hori ez da propaganda txarra AEKrentzat, ez, alajaina. Irabazteko estrategia zen. Jendarte zabala erakartzeko asmoa duen populismo klasikoa da oldarraldi eta giro nardagarri honetan aterpe irekia izan nahi duenarentzat. Monsieur leCrêpe-ri entzun diogu LP berrian: “*Ezertxo ere ez esan eta elkarri emaiotzue bakea*”.

Apurtzaile izateak ez ditu beharbada nahi eta behar beste fruitu eman, baina euskararen indarraldi bat ez dut uste firmeki abiatu daitekeenik akelarre iruditegi soil batekin. Zeren, letrik askorik esaten ez badute ere, txinparta etor zitekeen musikarekin. Astinaldi bat behar dugula esaten badugu, uste dut horrek ausardia eskatzen duela. Eta hori ez da Korrikaren kontua soilik. Ez dut oroitzen aspalditxoan orain baino motibo gehiago egon denik jendea euskararen alde mobilizatzeke, eta, ekinaldi kultural eta politikoko batek benetako indarraldia ekartzea badu xede, txinparta piztu eta kate batzuk apurtu beharko ditu, abestitik hasita. ●

1

Euskal Wikipedia munduko lehen postuan kokatu da oinarrizko 1.000 artikuluen zerrendan. Une honetan, euskara da planeta osoan zerrendako artikulua guzti-guztiak 30.000 byte baino gehiagoko luzerara eguneratuta dituen hizkuntza bakarra.

36

espezie babestu tiroz hil dituzte ehiztariek Gipuzkoan, azken lau urteetan. Besteak beste, gabirai arrunta, arrano txikia, belatz handia, zozoa, zapelatz arruntza, txirta, aztore arrunta, miru gorria, ubarroi handia, kaio iluna, okil handia eta sai arrea.

1.500

lagunek baino gehiagok egiten dute lo egunero kalean EAEn, 2022an baino bi aldiz gehiagok. 10etik 7 hiru hiriburuetan bizi dira eta beste 2.700 etxegabe daude, baina aterpetxeetan egiten dute lo. Gehienak gizonezkoak dira.

“Bota nahi gaituzte! Baina Alde Zaharreko auzokideen sostengu handia sentitzen dugu eta horrek indarra ematen digu”

Iruñeko Mercaderes 18 eraikina Vidaurre Group eraikuntza enpresarena da. Alokairu turistikorako etxebizitzak egin nahi ditu eta geratzen diren bizilagunak enpresaren presio gogorra jasaten ari dira bertatik alde egin dezaten, salatu dutenez.

ARGIA.EUS (2025-12-12)



“POZTEN GAITU ESTATU-ESPARRU BATETIK TXIKI ETA OTAEGIREN GAIA BERE TOKI ZEHATZEAN JARTZEAK”

EGIARI ZOR FUNDAZIOA

Espainiako Gobernuak Txiki eta Otaegiren kontrako gerra kontseilua baliogabetu egin du.

2025-12-11

“Hizkuntza-eskakizunei buruzko artikulua Konstituzionalera eramatea sektore publikoa euskalduntzeko sistema guztia zalantzan jartzea litzateke”

IBONE BENGOTXEA

Enplegu publikorako hizkuntza eskakizunei buruzko dekretua Konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela planteatzeko tramiteak hastea onartu du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak eta “bereziki larria” dela ohartarazi du Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak.

2025-12-09



Sustraitu



DIANA FRANCO EGUREN

Joan den astean Robe abeslariaren heriotzaren berri izan nuenean, gazetako parranda-lagunekin mezuak partekatu nituen, bere musikarekin bizitakoak oroitzen. Egia esan, gaztea nintzenean ez nion arreta asko jartzen pertsonaiari, ez taldeari, soilik musika eta letrei. Bere heriotzaren berri entzuterakoan, gaur egun zen pertsona motaren inguruan jakin-mina piztu zitzaidan. Interneten bere bizitzaren inguruan kuxkuxeatzen ari nintzela, bere lurraldean, Extremaduran, egin zioten omenaldi batean eman zuen solasaldia entzun nuen. Omenaldi hartara bertaratzeko arrazoi bakarra aurkitu zuela esan zuen, agintariei eskaera bat egitea: "Bideratu mesedez gazteak biltzeko eta sortzeko lokalak".

Aurreko astean, Durangoko Azokaren baitan Game Erauntsia eta Rolariak taldeekin hitz egiten, bideojokoen sorkuntzaren inguruan aritu ginen, lan aukerei lotuta. Ulertu nuenagatik, Euskal Herrian bideojoko munduari loturiko estudio handirik ez da. Badira, ordea, bideojokoen industriari lana aurkitzeko bidean hezkuntza programei loturiko zenbait titulazio. Mundu horretan sartzen diren gazteak badakite bideojokotan lan egiteko kanpora joatea edota telanara dituztela aukera bakarrak. Badirudi, telanarekin, sorkuntzari loturiko industriek munduko talentua xurgatzeko bideak aurkitu dituztela. Dinamika hori beste industria batzuetara ere zabaltzen ari dela ikusten gaitza.

Arbolaren sustraiek lurrari heltzen dioten bezala, gure herrian gazte sortzaileen talentuak kanpoan sortzen diren telanarako aukeren baliabide soilak bilakatu ez daitezten, dugun sorkuntzarako ehundura ereduaren inguruan pentsatzen jarraitzea besterik ez dugu. Roberekin bat nator, bildu eta sortu nahi duten gazteentzako espazio eta azpiegitura digitalak baliatzen jarraitu behar dugu, bizitza eta baliabideen errespetuan erroturiko jokabide eta kode etikoei lotuta. Sarrera errazekoak eta egoteko modu informalak ere onartuko dituztenak. ●

EEPren aurrekontua berritu dute

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Euskararen aldeko hizkuntza politika eraginkorra bideratu ahal izateko, EEPko kide bakoitzak –Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua, Eskualdea eta Frantziako Estatuak– 650.000 euroko emendioa onartu beharko luke, baina ez da horrelakorik gertatu: 100.000 euroko emendioaren alde egin dute. Euskaingintzak eta Euskal Hirigune Elkargoak salatu dute baliabide gehiago jarri ez izana.

Biltzar nagusiak erabakitakoarekin "oso dezepzionatuta eta haserretuta" aterara dira Euskal Hirigune Elkargoko ordezkariak, *Berria*-k jaso ahal izan duenez. Departamenduaren ordezkari eta EEPko lehendakari Maider Behoteguyren arabera, haatik, "erabaki baikorra" aterara da: "Denek bat egiten dugu euskara larrialdi egoeran dela, denak kontziente gara gure herrialdean eta zenbait instituziotan koiuntura eta finantza arloko zailtasunak daudela. Gaur bakoitzak urrats bat egin du, lau partaideek elkarrekin aitzinatu nahi zutelako. Gaur-gaurkoz, bilan baikorra da, baina dena segitu behar dugu".

Hizkuntza politikarako beharrak zehaztu zituen EEPk 2023ko uztaillean eta aurrekontua %65 emendatzea ondorioztatu zuten; hau da, kide bakoitzak 650.000 euro gehiago ezartzeara –adostasunik ez zuten ez lortzen, 300.000 eurora apaldu zuten eskarara–. Lau kidez osatuta dago erakundea (Euskal Hirigune Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Akitania Handia Eskualdea eta Frantziako Es-

tatua) eta hein bereko ekarpena egin beharra daukate lauek. Baina Euskal Elkargoa izan zen kopuru hori ontzat eman zuen bakarra eta orduz geroztik egoera blokeatuta zegoen. Azkenean, bakoitzak 100.000 euro gehituko ditu, hastapeneko helburuetatik biziki urrun. "Gure partaideek ez dute deusik laxatu, deusik onartu. Haiek finkatu, eta gisa batez inposatu diru zaman gelditu gara", adierazi du Antton Kurutxarri Euskal Elkargoko hizkuntza politikarako lehendakariordeak Berria-ri, biltzar nagusiaren bukaeran.

Euskal Konfederazioko ordezkari Sebastien Castetekin hitz egin du ARGIAk eta atsekabea eta haserrea adierazi ditu: "Trufarik ez euskararentzat genion, baina tamalez, trufak segitzen du...". Ostegun arratsaldean buruturiko biltzar nagusian adosturiko aurrekontua "ez da batere nahikoa" bere ustez, eta argi du: "Frantziako Estatuak segitzen du bere linguizidioa".

Bestalde, 2050erako Ipar Euskal Herriko biztanleen %30 euskal hiztunak izatea jarri dute helburutzat biltzar nagusian. Hori, aitzinetik ere bere helburuetan zuen EEPk. Hain justu, 2024ko ekainean aurkeztu zuten Ipar Euskal Herriko euskal hiztun kopurua %30era heltzeko prospekzio soziolinguistikoa. Arazoa da adosturiko aurrekontuarekin helburu hori ezin lortua daukatela.

Azkenik, bi urtean behin EEPko kide diren erakundeetako presidentek bilduko dituen konferentzia bat antolatzearen alde ere egin dute. ●



EUSKAL KONFEDERAZIOA



Hemen Venezuelan Trump negoziazio bat bilatzen ari dela iruditzen zait

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Venezuelak asteak daramatza nazioarteko foku mediati-koan: herrialdea inbaditzeko edo Maduro presidentea hiltzeko AEBen mehatxuak, Corina Machado Bakearen Nobel sariduna atzerriko interbentzio militarren alde, gobernuaren adierazpenak inbasioari militarki aurre egiteko prestutasuna adieraziz eta ekimenak herritarren artean formazio militarra sustatzeko, txalupetan doazen ustezko droga trafikatzailen exekuzio estrajudizialak, Venezuelako petrolio ontzi bat bahitu zuten AEBek... Mikel Morenok hamahiru urte daramatza Venezuelan bizitzen, nazioarteko elkartasunerako Pakito Arriaran Fundazioko kidea da, eta ezkerreko mugimendu politiko eta herritarrekin harremana du.

Venezuelaz heltzen zaizkigun albisteek larritasuna transmititzen dute, tentsioa, gatazka edota zuzenean gerra arriskua. Zein da egoera Venezuelen?

Egunerokoa guztiz normala da, bizitza ez da ezer aldatu irailean erasoak hasi zirenetik. Jendea aspaldi abenduko ospakizunetan pentsatzen ari da, erosketak egiten, edo saiatzen egiten, zeren eta, arlo ekonomikoan pare bat urtetan izan dugun lasaitasuna bukatu eta inflazioa poltsikoei gogor erasotzen ari da aurten. Horrek badauka jendea larrituta, baina herritarrek Venezuelen edozein testuingurutan bizitza normaltasunean aurrera eramaten ikasi dute, eta Trumpen mehatxuak eta eragin nahi izan duen gerra psikologikoa oraingoan, edo orain arte, ez diote funtzionatu.

Herritarrek mobilizatzea deitu dituzte gobernuak zein oposizioak. Oposizioa aspaldi ez da mobilizatu hemen, soilik sare sozialetan existitzen da. Beraien azken mobilizazio handia egiteko saiakera urtarrean izan zen, Nicolas Maduroren lehendakaritza berrirako (2025-2031) zin egitea baino lehen, eta porrot izugarria izan zen. Hori eta gero



Maria Corina Machado bere jendea kalera aterarazteko formatuak aldatzen saiatu zen, baina ez zion funtzionatu, eta aspaldi ez dute deialdirik egin. Chavis- moak, bai, kaleetan jarraitzen du. Trumpen mehatxu eta erasoek mobilizatzaera ateratu dute jendea. Betiko moldeetan, manifestazio koloretsu eta alaietan, alde batetik inperialismoaren aurkako mezu tinkoak eta bestetik musika, dantza eta jaia konbinatzen dituztenak. Aste hone- tan bertan manifestazio jendetsua egin zen Caracasen, Santa Ineseko bataila historikoa oroitzeko, Maria Corinari No- bel Saria ematen zioten egunean.

AEBen mehatxu maila goranzko eskaladan dagoela ematen du, ez bakarrik hitzez, baita txalupak bonbardatuta edo iragan astean petrolio-ontzia bahituta ere. Baina askotan ikusi dugu Trump herrialde bat gaur militarki erasotzen edo presidenteei mehatxu egiten eta bihar akordio bat itxi eta loreak botatzen. Zer gertatuko da?

Zaila da aurreikustea, baina iruditzen zait Trump, beste tokietan egin duen moduan, hemen Venezuelen negozia- zio bat bilatzen ari dela. Bera negozia- tzaile bat da eta horiek dira bere mo- duak. Orain dela bi aste jakin genuen kontaktuak egon zirela Amerikako Es- tatu Batuen eta Venezuelaren artean. Espekulazio eta gezur asko zabaldu dira elkarriketa horiei buruz, baina nahiz

eta benetan inork ez dakien zer hitz egin zen han, litekeena da ne- goziazioaren hasiera izatea. Se- gur aski egunen baten Trumpek esango du drogen aurkako borro- karen inguruan bere helburuak lortu dituela, edo demokraziaren inguruan... auskalo. Baina horren esanahia negoziazioan adostasun batera iritsi dela izango da.

Noski, horretarako sortu duen antzerkia ezin du bat-batean ber- tan behera utzi: ez dituzu egu- nero mobilizatzen ez duzu zure hegazkin-ontzi handiena, ha- marnaka beste gerra-ontzi, he- gazkinak, eta abar. Beraz, gerta daiteke bonbardaketaren bat egotea, operazio militarren bat... Eta beti egin izan duen bezala, bere beste garaipen baten mo- duan saltzen saiatuko da, nahiz eta bere erabateko garaipen bakarra Europako herrialde otzanei inposatutako muga- zerga eta baldintzena izan den. Beste kasu guztietan, bere nahietara makurtu ez diren herrialdeekin, negozia- ketetako bi aldeentzako irabaziak ekarri dituzte elkarriketek.

Venezuelaz harago, Hego eta Erdialdeko Amerika osoan ari dira AEBak injerentzia maila handitzen.

Ustezko narkotrafikatzaileen hilketak, itsasontzien lapurtzea edo AEBen as- moak sare sozialen bidez ia zuzenean argitaratzea ez dira Venezuelara mu- gatzen diren egiteko moduak. Eskual- dearen aurkako estrategia dirudi, azken egunetan "mendebaldeko hemisferioa" deritzotenerako AEBen estrategiaren eguneratzean irakurri ahal izan dugu- nez. AEBk Hego eta Erdialdeko Ameri- kan zein Karibean duten posizioa indar- tu nahi du une honetan, eta, nolabait, mehatxu horiekin esaten ari direna da, "edo guk nahi duguna egiten duzu, edo badakizu zer etorriko zaizun". Eta Ve- nezuela, 26 urteko borrokaren ondoren, ohituta eta prest dago honi aurre egi- teko, baina horrelako arrisku iraunkor batek ondorio desberdinak izan ditzake beste herrialde batzuetan. ●

'MAKE EUROPE GREAT AGAIN'

IDEOLOGIARI TIRAKA,

GOGORTUZ DOA EUROPAREN

MIGRAZIO-POLITIKA

Eskuin-muturrak indar handia du Europar Batasunean, are gehiago eskuineko Europako Alderdi Popularrak babesa erakusten dionean. Hori gertatu zen abendu hastapenean, giza eskubideen izenean jarritako marra gorri batzuk zangopilatu eta migrazio-politikaren gogortzearen alde egiterakoan 27 estatu-kideen gehiengoak. Etorkinei mugak hestea bada Trumpen helburuen artean, eta amerikar zein europar *think tank* ideia talde boteretsu batzuk da biltza horren alde lanean. Ongi lanean, gainera: Bruselako pasilloetan diskrezioz eramandako lanak ekarri du migrazio-politikaren tinkaldi berri hori.

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Izarrak lerrokaturik dauzka Europako eskuin-muturrak: bat, 187 eurodiputatu ukateaz gain, Europako Alderdi Popularra taldeko eskuindarrak ere ari zaizkio noiztenka babesa erakusten; bi, erregulariki jasotzen du mundu mailako supremazista ezagunenetarikoa dugun Donald Trumpen sostengua; eta hiru, bere ideien zabalpena xeheki lantzen dabilzan *think tank* edo ideia talde indartsuak dauzka emankor, Europar bezainbat AEBetan. Hori horrela, ez da harrigarri munduaren beste puntatik Donald Trumpen Europaren migrazio-politika gogorki kritikatu izanaren bihar-munean politika horren gogortzearen alde egitea Europar Batasunak.

Abenduaren 5ean plazaratu zuen 33 orriko dokumentu bat Etxe Zuriak, zeinetan eskaintzen zion lerro parrasta Europar Batasunak gertatu daitekeen "zibilizazio ezabaketari". Ondokoa irakurri daiteke: "Egungo joerek segitzen badute, hogeitazko urte barru edo gutxiagotan ezezaguna izanen zaigu kontinentea. (...) Migrazio masiboen aroa bukatu egin behar da. Mugetako segurtasuna da segurtasun nazionalaren elementu nagusia". Hortik hiru egunetara zetorren zentzu berera doazen hiru testuren bozketa: beren ja-

torriarekin loturarik gabeko herrialdeetara kanporatzen ahalko dituzte etorkinak; EBtik kanpo irekitako "itzulerarako-zentroetara" ere bidaltzen ahalko dituzte, eta modu irregularrean gelditu nahiko luke tenentzako errepresioaren gogortze latza onartu dute, tartean, gaur egun sei hilabetera arte izan zitekeen atxiloaldia hamabi hilabetez luzatzeko aukera irekita.

Zehazki, kanporaketak errazteko eta azeleratzeko bidea da abenduaren 8ko Bruselako bozketak utzitakoa. Munduko herrialde batera kanporatzen ahalko dute papergabea, baldin eta, alde biko hitzarmena izenpetuta badauka estatu-kideak bestelako herrialde horrekin; eta berdin dio etorkinak ez baldin badu inolako loturarik herrialdearekin. Erresuma Batuak Ruandarekin ireki zuen bidea 2024an, eta Italiak segitu zuen Albaniarekin. Abenduaren 8ko bozketak orokortu egin du migrazio-politikaren esternalizazio hori. Alta, bada urrats esanguratsua, giza eskubideak zangopilatzeaz gain, EBak zein estatu-kideek beraien ardurak beste batzuen esku uzteko joera nabarmena delako. "Herri seguruen zerrenda" ere adostu dute, bertan egoteak arriskurik ez dakarrela ondorioztaturik, herrialde horietakoen asilo eskaerak errazkiago baztertuta, kanporaketa horiek ere azeleratzeko.

Logika berean, EBren mugen kanpoaldean "itzulera zentroak" eraikitze bidea onartu dute Europako 27 Barne ministroek, asiloa errefusaturik daukatenak bertan metatzeko. "*Offshore* presondegiak", Equinox Initiative for Racial Justice erakundeko zuzendari Sarah Chanderren hitzetan.

Asilo eskatzaileak elkarren artean banatzeko sistema berri bat adostu dute ere estatu-kideek, migrazio bideetan zehar kokatzen diren herrialdeak "arintze aldera", tartean, Grezia, Espainiako Estatua eta Italia: beste estatu kideek asilo eskatzaileak beren lurretan birkokatzeko betebeharra izanen dute, eta egin ezean, asilo eskatzaile bakoitzeko 20.000 euroko diru ekarpena egin beharko diete "presiopean diren estatuei". Sistema hori nola ezarri negoziatzen aritu dira hainbat astez, eta datorren ekainean sartzekoa da indarrean.

"DESHUMANIZAZIOA GELDITZEA", URGENTZIAZKO LEHENTASUNA

"Neurtzen ote dugu zenbatetaraino aldatzen ari den gure mundua? Konturatzen ote gara migrazio-gaien inguruan gertatzen ari dena gure jendarteentzako porrot moral eta demokratiko erraldoi



MUGAK ALANBRE Azken urteetan indartu egin da mugak hesteko Europar Batasunaren politika. Argazkian, Bielorrusia eta Poloniaren arteko muga. AFP/Belta

bihurtzen ari dela?" galdera luzatzen du etorkinen laguntzen dabilen Cimade elkarteak urrian zabalduz iritzi testuan. Washingtonetik Bruselasera, logika bera gailentzen ari dela dio: xenofobia lekua hartzen ari da, giza eskubideen gainetik pasata. "Deshumanizazioaren, oinarriko eskubideen eta Zuzenbide Estatuaren kontrako jarrera horiei geldialdia ematean datza urgentsia. Premiazkoa da behingoz esnatzea", Cimaden hitzetan.

Parisen bildu ziren azaro hastapenean Europako eskuin-muturreko ordezkariak, *The Great Reset* [Berra-

sieratze Handia] planaren inguruan, Europaren desegituraketa helburutzat hartuta. Hilabete batzuk lehenago, Madrilen ziren, *Make Europe Great Again* [Europa berriz handi egin] lelopean, Trumpen *Make America Great Again* ospetsuari segika. Hitzordu horiek izebergaren punta besterik ez dira, eta diskretuki dabilta aitzina, The Heritage Foundation *think tank*-a -Trumpen kanpaina marrazten arituriko ideia taldea-, Frantziako Observatoire de l'immigration et de la démographie [Immigrazioari eta demografiari buruzko behatokia]

edota Hungariako MCC Brussels sukurtsala bezalako eskuin-muturreko ideia taldeak. *Mediapart*-ek plazaraturiko *À Bruxelles, le think tank d'Orbán mène sa "guerre culturelle"* (Bruselan, Orbánen *think tank*-ak bidean du bere "gerra kulturean") erreportajea interesgarria da beraien helburuak eta estrategiak eza-gutzeko. Europar instituzioak desegitea dute helburu, beti ere eskuin-muturreko ideiei bidea irekitzeko gisan. Nola ez, immigrazioaren kontrako politika badute lehentasunetan, edo abenduaren 8ko bozketak erakusten digu, bide onetik dabiltzala. Bruselako Unibertsitate Libreko zientzia politikoko irakasle Ramona Coman ustez, "alderdi kontserbadoreen eta eskuin erradikalaren inguruan hazten diren *think tank*-en agerpena gero eta agerikoagoa da Europan" eta "botere banaketan, zuzenbide estatuan eta oinarriko eskubideen errespetuan oinarritua den demokrazia liberalaren erregimen politikoa pixkanaka eraldatzea da beraien helburuetariko bat".

Trumpen adierazpena abenduaren 5ean izan zen, 27 Barne ministroen bozketa abenduaren 8an, eta biharamunean, berriz, hau genuen: Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren erreformatzeko deia zabaldu zuten Erresuma Batuko lehen ministro Keir Starmerrek eta Danimarkako lehen ministro Mette Frederiksenek *The Guardian*-en publikaturiko gutun batean. Arrazoia, "asilo-sistema beste garai baterako osatuta izanda", ez diela erantzuten "XXI. mendeko desafioei". Bestela erranda, traban dituzte giza eskubideak. Ez, ez da izar lerrokatze kontu bat gertatzen ari zai-guna: urratsez urrats, eskuin-muturrak landutako bide bat dago hor, eta badoaz aitzina. Ondoko asteetan helduko da Europako Parlamentura abenduaren 8an onarturiko neurri-sorta. ●



Hernani 23, Donostia

T 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM



Zinkunegi Optikan ikasturte hasierarekin batera **umeei zuzendutako** ikusmen azterketak egiten ditugu.

Ukipen-lenteak, miopiaren kontrola eta ikusmen terapia ere baditugu.

Onintza Legorburu

EUSKAL CAMP ERRADIKALA



IKUSI BEHAR DUGU HIZKUNTZAK NOIZ JOKATZEN DUEN ROL ESTRATEGIKOA, ETA NOIZ EZ



Hitz egin ahala, Onintza Legorburuk hitzak eta zeinuak zirrimarratzen ditu koadernoan: boligrafoa eskuan, zehatz azaltzen ditu gauzak. Nik, bitartean, belarriekin egiten diot txalo. Maiatzean, behaketa eder baten bidez jaso zuen Señora sariketako kanporaketa bat, eta hala jakin nuen zertan zebilen. Euskal hiztun transfeminista eta antifaxista gisa ditugun kezka asko ekarri ditu hitzetara.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Euskal Herriko espazio transfeminista informaletako hizkuntza-ideologiak aztertzen ari zara. Nolatan?

Nik espazio feministetan militatu izan dut beti. Herriko eta bailarako talde eta ekimen feministak izan dira nire militantzia eskola, nire eskola ideologiko eta politikoa. Bestalde, euskaltzaletasunetik ere banator, baina ez modu militantean: etxetik jaso dut, nire DNAn egon da beti.

Hasieran hizkuntza eta generoa lotu nituen, eta ohartu nintzen generoa badela kategoria sozial bat hizkuntza ulertu ahal

izateko. Gero, espazio feministetan gauza batzuk gertatzen ari zirela ikusi nuen: pertsona batzuek halako espazioetan ikasi dutela euskara, eta euskara bera berrirori ere lotu dela transgresioarekin. Eta galdera hau piztu zitzaidan: zelan dabil euskara legitimatzen espazio horietan?

Hizkuntza-ideologiak zilegitasunarekin lotuta daude-eta.

Hizkuntza guztiek eskuratzen dute balioa nonbaitetik: hizkuntza gutxituek leku batzuetatik, eta hizkuntza hegemonikoek beste batzuetatik. Kathryn

Woolard estatubatuarrak asko ikertu du hizkuntza-ideologiaren inguruan, eta berak esaten du bi konstruktuko ideologiko daudela: anonimotasuna eta autentikotasuna. Anonimotasunak hizkuntza nagusietan operatzen du. Ingelesa, adibidez: funtzionala, unibertsala. Hor dauka bere balioa. Autentikotasunak, berriz, justu kontrakoan operatzen du: berezia, antzinakoa...

Euskarak hor jokatu ditu partida asko, baina autentikoak baldin badira herri txikitako euskalkidun hiztunak, euskaldunen gehiengoak ezin du partida hori jo-



Onintza Legorburu Larrea

ANTZUOLA, 1993



Gizarte Langintza ikasi zuen, eta antropologia sozial eta kulturalari zein ikasketak feministei buruzko master bana egin du. Generoaren eta hitanoaren arteko lotura eta gatazkaren memoria aztertu ditu. Emun kooperatibako bazkide da, eta, gaur egun, tesia egiten ari da: mugimendu transfeministako hizkuntza-ideologiak aztertzen dihardu, hitzunen legitimazio prozesuetan fokua jarrita.

katu, eta orduan zelan izango da gure hizkuntza legitimatzeko modua? Saiatu gara anonimotasunerantz etortzen, baina ez zaigu hain ondo atera. Formalitatean geratu gara, eta horrek aspermena sortzen digu. Ez gara ingelesa, eta ez gara sekula izango. Espazio transfeminista informalean, ordea, bi konstruktuhorietatik aparte ematen zaio autoritate hizkuntzari, eta interesgarria iruditzen zitzaidan dikotomia horretatik aparte sortzen zena aztertzea.

Behaketak egin dituzu, adibidez, zenbait herritako queer taldeen egitarauetan. Zer ikusi duzu?

Flipatu egin dut, adibidez, gorputzak daukan presentzia ideologikoarekin. Zuk begiratzen diozunean espazio bati antropologiaren estrainamendutik [gauzei ezagutuko ez bazenitu bezala begiratzea], eta ikusten duzunean espazio horretan praktika nagusia dela dantza, edo ikusten duzunean jendeak hartzen duela espazio hori estetikoki modu oso konkretu batean, ikusten duzunean jendea leku horietan ez dela janzten astelehen goizetan bezala, edo zapatuan bere herrian poteatzeko janzten den bezala, eta jartzen duela transparentzia bat, edo margotzen duela begiko marra, eta hori ez dela beste inon pasatzen, ohartzen zara berariazko gauza bat dela, eta inportantea dela.

Espazio horietan dibertsioak, umoreak eta *mamarratxeoak* presentzia handia daukate, eta euskaraz gertatzen dira. Kontuan hartuta gaur egun zein den nire kezka handietako bat, hau da, euskara aspermenarekin eta transgresiorik ezarekin lotzen dela, espazio horiek sekulakoak iruditzen zaizkit, ze jendea hor dago titi bistan eta euskaraz, eta hori zelanbait pegatu egiten zaio euskarari.

Beste zerbait sortzen da, anonimotasunetik eta autentikotasunetik at?

Bi termino horietatik irteten saiatu naiz. Baliagarriak dira azalpen moduan, baina marko hori edukitzeak leku batzuetara eramaten gaitu, eta marko hori gabe igual beste leku batzuetan jokatu dugu. Esan nahi dut: *perreatzea*, adibidez, zer da? Auten-

tikotasuna edo anonimotasuna? Ez bat ez beste. Eta Señora sariketa zer da? Autentikotasunari burla. Dikotomia horretatik irteten, eta transgresio batekin lotzen da. Ez dakit hori bera hizkuntza-ideologia bat den, ez dakit izenik jarri behar diogun, baina bada euskara beste leku batetik balioztatzeke eta bestelako iruditegiak sortzeko modu bat. José Esteban Muñozen utopiaren proposamenarekin lotzen dut. Nik ikertzen ditudan espazioak proiektu pilotuak dira, eraikiko genukeen gizarte baten proiektu pilotuak. Protoespazioak. Etorkizunerako leihotoxoak. Eta argi dago balizko Euskal Herri hori euskaraz dela.

Eta ez da kasualitatea.

Zumaian sortzen den zeozer logikoki sortzen da euskaraz, eta sortzen duen jende horrek berez sortuko luke euskaraz, baina kontua da politikoki ere sortu duela euskaraz. Kontzientzia bat dago. Jendeak garbi esaten du: transfeminismoa, Euskal Herrian, euskaraz izango da, edo ez da izango; ez dauka bestela zentzurik. Hizkuntzaren afera ez badugu hartzen, ez da osotasuna. Eta horrek sortzen dituen gatazka guztiekin, ze tentsioak ere sortzen ditu. Zer gorputz dago espazio horretan? Eta zein ez?



Ez da politikoki zuzena hau esatea, baina batzuetan euskara ez da lehentasunezkoa, eta ez da ezer pasatzen"

Nik uste dut egin behar dugula serio berba lehentasunez buruz. Nire aferetako bat, bizitzan, hizkuntza da, baina igual SOS Arrazakeriaren egitasmo batean banago, jakin behar dut espazio horretan hizkuntza alde batera lagatzea dela modu bat jende batekin egoteko, eta jakin behar dut, jende batek bestelako behar batzuk ez badauzka aseta, ba hizkuntzarena bigarren mailan geratzen dela, nahiz eta niretzat ezinbestekoa izan, baina horretarako dilistak dira ezinbestekoak, eta nik badauzkat.

Egin behar dugu serio berba horri buruz, eta pentsatu: noiz da hau lehentasuna? Noiz bigarren mailakoa? Bigarren mailakoa den lekuetan noiz bilakatuko da gai? Agian behin paperak lortu ostean, ba hizkuntzarena hasi beharko gara zelanbait egiten. Ikusi behar dugu hizkuntzak noiz jokatzen duen rol estrategiko bat eta noiz



ez. Jakinda gaztelaniak edota frantsesak beti jokatu dutela rol estrategiko bat; ezinbestekoak baitira gurean bizi, eta baliabide ekonomiko eta sinboliko batzuetara iristeko. Ez da politikoki zuzena hau esatea, baina batzuetan euskara ez da lehentasunezkoa, eta ez da ezer pasatzen. Horregatik ez gara euskaldunago, edo euskararen kontrako. Ari garena da goseak dagoen jendearekin hizketan. Eta hizketan egiteko baliatu behar badugu espainola, ingelesa edo frantsesa, ba ze ondo hizkuntza horiek dakizkigula eta komunikatu gaitezkeela jende horrekin. Ze arabiarez ez dakigu.

Erabat ados.

Bestela geratzen gara bakoitza bere laukitxoan, eta ez gara hortik irteten.

Aizu, eta euskal pop kultura berria, zer da?

Taupa mugimenduak ohituren biziberri-tzeari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, eta nik marko horretan eman nuen *Euskal pop kultura berria* hitzaldia. Nire ustez, espazio transfeminista informaletan, eta folkloreak adieraberritze edo berresanahitze batekin, pop kultura bat gertatzen dabil, zelanbaiteko kultura popular berri bat. Zergatik da Britney

Spears ilea rapatzen pop kultura eta Aisla [Intxausti] titia erakusten Bilbao Arenan ez? Hori baino pop kulturagorik zer dago? Niretzat, gainera, horrek aukera berriak mahaigaineratzen dizkigu euskararentzat.

Jacqueline Urla antropologoaren ikerketa batean oinarritu zara.

Urlak espazio kontrakultural batzuk aztertutik 1980-1990eko hamarkadan, eta ikusi zuen punkaren bidez beste euskalduntasun bat sortzen zela, eta euskarak beste leku bat hartzen zuela, transgresioarekin oso lotua. Azken batean, beste euskal hitz bat sortu zela, ordura arte ez zegoena. Nire ustez hori pop kultura moduan irakur daiteke. Ez zen garaiko kultura bakarra, eta ez zen garaiko kultura popular bakarra, baina oso presente geratu da gure iruditegian, gaur egun bizitzen ari garen *remember fest*-ak erakusten duen moduan.

Zein ziren euskalduntasun berri horren oinarriak?

Makarrismoa, transgresioa, punka, euskara, eta, Urlak berariaz aipatzen ez duen arren, maskulinitatea. Eta hori aintzat hartuta, zer pasatzen ari da nikertzen nabilen espazio kontrakultu-

raletan? Ba, pop kultura berri bat: *makarrismoa* beharrean *mamarratxeoa*, punkaren ordez *camp* kultura, euskararen elementua mantendu egiten da, eta maskulinitatearen ordez queertasuna agertzen da. Eta transgresioak pisu nabarmena izaten jarraitzen du.

Nolakoa da *camp* kultura hori?

Folkloreak adieraberritze batetik sortzen ari da. Eta kode alternantzia batekin. Bi mundutako kodeak hartzen dira, euskalduntasuna errepresentatzen duen munduaren kodea eta queertasuna errepresentatzen duen munduarena, eta nahastu egiten dira, eta euskalduntasunari buelta bat ematen zaio umoretik eta ironizaziotik. Maruxak taldearen *Erromesa* kantua horren adibidea da, eta Altxa Lilik egiten duena ere hortik doa. Niretzat sekulakoa da *marikoneoa* existitzea euskaraz, euskaratik, eta Euskal Herria Euskal Herri moduan irakurtzen duten jendearen partetik. Hori guk egin behar dugu, bestela zeinek egin behar du?

Nik oraintxe erosi dut Goenkaleko Maria Luisa Galardiren kamiseta bat, Alexander Padillak egina. Niretzat, pop kultura da. Guk, bestela, ez daukagu jolasik horrelako figurekin. Maria Luisa Galardi baldin bada gure Lola Flores, ba, mesedez, kamisetak oraintxe. Fenomeno postmoderno bat da, eta beste leku batzuetan ere gertatzen ari da, baina Euskal Herrian badauzka bere berezitasunak. Punkarena ere ez zen hemen bakarrik pasatzen, baina hemen hartu zuen forma konkretu bat, eta honek ere berdin. Interesgarria iruditzen zait, ze kokatzen du euskara beste leku batean, sortzen dio beste iruditegi bat, Andereño Garbiñetik eta Sebastian Liza-sotik haragokoa.

Azaroaren 8an Eskuintz eguna antolatu zenuten Antzuolako talde feministak eta Arrasateko Morbor taldeak. Goizeko mahai-inguruan afektuen teoria baliatu zenuen hizkuntzaz jarduteko.

Afektuen teoriak zera diote: mundua ulertu nahi badugu, ezin dugu arrazionalki bakarrik ulertu. Afektibitateak jokatzen du partidaren zati bat, eta hori aintzat hartu ezean jai daukagu. Azertu ditudan espazio transfeministetan, besteak beste, poza ageri da, eta modu publiko batean gainera: ni hartzaile moduan joan naiz espazio horietara. Eta interesgarria iruditzen zait hori bera: euskara pozaren afektuaz blaitzen dela espazio publiko batean.



Dibertitu ere dibertitu behar dugula, hara.

Bai, eta horrek ez du esan nahi instituzioek ez daukatenik ardurarik honetan eta hizkuntza politika sendo bat ez denik egin behar; baina bueno, ez da kontrajarrria, agian hizkuntza politika sendo bat egiteko afektibitatea ere kontuan hartu behar dugu, edo zein eratako hiztunak dauzkagun, zein tipologietakoak, zer intereseekin, eta abar.

Egunaren baloraziorik egin duzue?

Guk oso argi daukagu, batetik, aliantzen kontua: mundua dagoen moduan, edo elkarrekin goaz edo ez goaz; gero erabakiko dugu zer identitate erabili behar dugun estrategikoki momentu bakoitzean, hizkuntzarekin bezala; bestetik, argi daukagu guk irudikatzen dugun

mundua eta guk irudikatzen dugun Euskal Herria euskaraz izatea nahi dugula. Eta hortik eraiki dugu dena.

Irakurri genuen testuan bai aipatzen zen zelan irudikatzen ditugun euskal hiztunak, ea queer hiztun bat irudikatzen dugun euskal hiztun moduan edo ez, zer ematen diogun guk hizkuntzari eta zer ematen digun hizkuntzak guri. Tentsio horiek aipatu, eta esaten dugu gu garela queerak, edo transfeministak, edo feministak, eta garela euskaldunak. Biak batera gara, eta izango gara. Horrelako hiztunak bagaude, eta puntu.

Eta eskerrak.

Eskuirt egunean esan bezala, eskuin muturra badator, eta eskuin muturra dator bi aldeetatik: eskuin muturra dator euskara debekatuko diguna, eta eskuin

muturra dator Atzerriartasun Lege euskaldun bat ipiniko diguna euskara salbatzeko, eta guk ez dugu nahi ez mundu bat eta ez bestea. Ez dugu onartuko, ez dakit zer mundu eraikitzeko, euskara erabilteza guri xantaia egiteko elementu gisa.

Eztabaida ibili da euskararen zentroaren eta periferien inguruan.

Niri pena ematen dit, ze debateak, gero, ez dira benetan gertatzen: jartzen gara ostiaka, eta akabo. Ez, berba egin dezagun benetan. Gauza bat da esatea euskara hizkuntza gutxitua dela eta ni ezin naizela euskaraz bizi Euskal Herrian inon ere ez, eta beste bat da, horren barruan, bagaudela hiztun batzuk prototipikoak, legitimitatea daukagunak, eta beste batzuk ez.

Hiztun gasteiztar bat unibertsitatera joaten denean, euskalkirik gabe, bere hiztuntasunak edo euskalduntasunak ez du nireak beste balio, eta gero hor dator bueltaren buelta, ze ni joan nintzenen Antzuolatik Bergarara, institutura, bergararrek orokorrean barre egiten ziguten antzuolarroi; tartean, gure euskalduntasunagatik. Ez da kasualitatea nik 25 urte izan eta kontzientzia feminista hartu arte hitanoan ez berba egitea, jakin banekien arren.

Bi gauzak aldi berean gertatzen dira.

Hori da. Eta ez daude bat bestearen kontra. Esaten dute euskarak ezin duela izan zentrorik hizkuntza gutxitua den heinean, eta euskararen zentroak eta periferiak Madrilek eta Parisek markatzen dituztela. Eta ados. Paris eta Madrilek markatuko dute gure minorizazioa, baina gure baitan ere badaude desberdineriak. Eta ez da ezer pasatzen. Ez du esan nahi euskara hizkuntza gutxitua ez denik; kontrakoa: hizkuntza normalizatu bat ez delako gertatzen dira bi gauzak aldi berean. ●

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2025

FINALA! ABENDUAK 20
zapata

BILBO
CASILLA. 17:00

Aitor Bizkarra Ruiz,
Aitor Etxebarriazarraga Gabiola,
Gorka Pegoñabarraga Agorria,
Jone Uria Albizuri,
Oihana Bartra Arenas,
Onintza Enbeita Maguregi,
Txaber Altube Sarriñandia eta
Xabier Gallebebeitia Abaroa.

www.bertsosazale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Argia

Xilaba
BIGARREN FASEA
HIRIBURU
Abenduaren 21ean,
17:00etan, La Perle gelan

**2025eko azaroaren 8tik
2026ko urtarilaren 31ra**

Aitor Servier Etxexuri
Irantzu Idoate Funosas
Joanes Etxebarria Martínez
Johaine Sarrailet Arrizabalaga
Nahia Sasco Etxeberri
Ramuntxo Christy Biscay
Gai-emailea:
Anton Lannes

www.bertsosarrerak.eus

Argia



AAren burbuila



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Azkeneko hilean Adimen Artifizialarekin (AA) lotura duten zortzi teknologia konpainia handiren galerek bilioi bat dolarreko muga gainditu dute, *Financial Times*-en arabera. Horien artean Ndivia, Oracle edo Meta bezalako enpresa erraldoiak daude. Nazioarteko finantza sistema desegonkortzeko ahalmena lukeen burbuila baten leherketaren aukera gero eta gauzagarriagoa da.

Adimen Artifizialaren bilakaera lehen urratsetan egon arren, garapenaren inguruan sortu diren igurikapen edo espektatibak sektorearen inguruko jokabide espekulatzailerak piztu ditu. Arlo horretako enpresek errentagarritasun handia eta bizkorra espero dute. Baina eskuragarri dauden AA ereduak indartzeko beharrezkoa den energia, datuak eta *hardware* ordaintzeko diru kopurua etengabe biderkatzen ari da. Gaur egun, Google, Meta, Microsoft eta Amazon enpresak bakarrik, 350 mila milioi dolarretako programak garatzen ari dira adimen artifizialaren arloan, inoiz ekonomia sektore batean izan den kopururik handiena. ChatGPT programaren hirugarren bertsioaren inbertsioa bost milioi dolarrekoa izan zen, eta bosgarrenak bost mila milioi dolar behar izan ditu.

AAren hedapenerako beharrezkoa den inbertsioaren hazkunde etengabeak arazo batekin egiten du topo: inbertsioen errendimendu beherakorrek. Hau da, zenbat eta gehiago handitu

Txinarekiko lehia
azeleragailua sakatu
dute AEBek, baina
arrakasta ekonomikoa
ziurtatu gabe, lasterketa
ero honek burbuilaren
leherketa ekar dezake

inbertsioa, orduan eta garestiagoak dira eta, hein berean, eraginkortasun txikiagoa dute. Horregatik, enpresa teknologikoak diru kantitate erraldoiak bideratzen ari dira eta horiek ez datoz bat inbertsioen errendimendu produktibo eta finantzario apalekin.

Espektatiba handiak sortuz, konpainia horiek akzioen balioak puztu egiten dituzte modu artifizialean, baina horrekin ere ez dute nahikoa eskuratzen gastu osoa estaltzeko. Inbertsioek hain itzulera ekonomiko ahula dute, ezen teknologia enpresak maileguak eskatzera behartuta dauden, eta zorpetu egiten dira. Atzeraldi Handian ospe txarra irabazitako Goldman Sachs eta Morgan Stanley aholkularitzek ere ohartarazi dute AAren gastua gero eta gehiago zorraren bidez finantzatzeko arriskuaz.

Bestalde, AAren ekosistema gero eta zirkularragoa da, hots, hornitzaileek eta enpresek finantzaketa gurutzatua dute; diru sarrerak partekatzen dituztenez eta kapitala elkartrukutzen dutenez, kapitalen kontzentrazioa gero eta handiagoa da sektorean. Baina dirua ez da biderkatzen, eskuz aldatzen da soilik. Diruaren mugimendu indartsuak AAren eskari erreala handiagoa dela sinestarazten du eta arriskua biderkatzen du. Finean, AAren burbuilaren hazkundea finantzatzeko salerosten ari direna kearen moduko tituluak dira: gainbalaratutako akzioak, itzulera zaileko zorra, enpresen arteko truke gurutzatuak, hots, balio erreal eskaseko finantza produktuak. Eskema finantzario horrek aurretik izandako burbuilen antz handia du, mende hasierako *puntucom*-en krisia kasu eta 2007ko *subprime* hipoteka tituluak, baina oraingoan eskala handiagoan.

Bestelako bidea erakusten ari da Txina. Bertan, AAren berrikuntza eta garapen prozesuak beste eredu bat jarraitzen du. Planifikazioa da gakoa eta, beraz, ez dago gain inbertsiorik ezta horri lotutako finantza burbuilarik ere. AA bizkor garatzen ari da, kostu apalagoan eta eraginkortasun handiagoarekin. Hona hemen AEBetako enpresa teknologikoen presa azaltzen duen arrazoia. Txinarekiko lehia azeleragailua sakatu dute, baina arrakasta ekonomikoa ziurtatu gabe, lasterketa ero honek burbuilaren leherketa ekar dezake. ●

Zer da bada hezkuntza, erlijioa, ala?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Ikasketekin lotutako bi funtzio ditu eskola-erakundeak. Alde batetik, ikasleku izatea berarena, haurrek edukiak ikastera eta gaitasunak erdiestera joaten diren toki gisa ulertu ohi delako nagusiki eskola; eta bestetik, pertsona baten jakintza formalki egiaztatzearena, jakintzak frogatzeko tituluak emateko eskumena duen erakunde bakarra delako.

Gainera, haurren eremu nagusia da, haurrek jendarte baten dinamikak zein diren ikasteko leku soziala. Horrela, gizartea zein balio inplizituk gobernatzen duten ikasten dute, zer nolako izaera hobesten den sozialki, edo zeren eta noren arabera jokatu behar duten, gizartean egoki txertatuko badira. Horrekin lotuta dago haurrak nazio baten barruan kide gisa txertatzeko eskolak duen egitekoa, komunitatearen lehen geruzak ezinbestean hartzen duela ko populua edo nazioaren izaera, kultura eta hizkuntza propioa duena.

Haurrek hezkuntza "sistema arautu"-tik kanpo jaso dezatela erabakitzen duten familiak, kolektiboak edo elkarteak kritikatuak dira eremu batzuetan. Baina hautu horren atzean dauden arrazoi oinarrian dagoena da indarrean dagoen sistemak funtzio horiek burutzeko hartzen duen norabidearekiko desadostasun oinarritzkoa, eta horrek arazorik gabe azaltzen du hortik ateratzeko egiten duten mugimendua.

Hasteko, erdigunean ikasketa esanguratsua jartzeko borondatea dago, zeren eta curriculuma bere osotasunean ema-

teari ematen baitzaio garrantzia sistema barruko eskola konbentzionalean, titulu ofizialak ematearen derrigorrezkotasunagatik. Zintzoki mintzaturik, denok ongi dakigu ikasleek ez dutela benetan barneratzen eskolan erakusten zaien guztia, eta titulua eskuratzeak ez duela benetako jakintzarik bermatzen.

Curriculumaren osotasunean eskaintzeak jakintzaren eremu zabala aurkezteko eta haurrek horrekin kontaktu minimo bat izateko balio du, eta ez da gutxi, baina edukien kantitateak, erritmoak, eta jakintza-ibilbidea haurrak bati hautatu ezin izateak eragotzi egiten du ikasketak esanguratsuak izatea. Sistema araututik kanpoko eskoletan curriculumaren gainetik pasatzen dira, eta haurrek gero ikasketa ibilbidean aurrera egin nahi izatekotan, agiria lortzeko prestatzen dituzte denbora tarte zehatz batean zehar. Titulua nahi eta behar izateak ez du ikasketa ibilbide guztia baldintzatzen, azken etaparena besterik ez.

Sistematik ateratzen direnen desioen artean, haurrek beste harreman-dinamika baten arabera jokatzeko eta printzipio osasungarriagoen arabera antolatzen ikastearena ere badago. Sozializazioa ez delako kontzeptu abstraktu eta neu-



DOM CAMPISTRON

troa, eguneroko bizimodua antolatzeko jendarteak hartzen duen eredu zehatza baizik, eta hortaz, mikro-gizarte gisa ulertu behar dugu eskola, elkarbizitzarako eredu politiko ezberdinek gidatu dezaketena.

Eta nazio ikuspegiaren aldetik, zer? Euskal Herrian haurrei eskaintzen zaien hezkuntza ez da gurea, estatu menderatzaileek ez digutelako inoiz halako eskumenik emango, jakintzak euskaraz helarazten "uzten" bazaigu. Ez al da hori nahikoa motibo sistema hori ez aitoritzeko? Euskaldunon hezkuntza publiko nazionala izateko borondatez abiatu zen ikastolen mugimendua.

Hezkuntza-sistema ez da erlijio bat, eta ez litzateke hala balitz bezala jokatu behar, hautu hori sakrilegiotzat hartuta, eta egitura horri guztiari men egiten ez diotenak heretiko kontsideratuta. Eskola ez da toki neutroa, eta are gutxiago sakratua. ●

Borrokak bakarrik balioko du!



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Borrokaren ordaina. Bi urte pasa dira Guggenheim STOP plataformak bere lanak hasi zituenetik eta nahiz eta museoaren proiektua oso lauso eta sekretupean egon den orain arte, herri mugimenduak paretaren kontra jarri ditu elite politiko eta kulturalak. Hemen eta nazioartean. Ez dago erabakirik oraindik, baina museo bikoitzaren ekimena martxan jarri zenetik, mugimendu aktibo eta jarduera ugari ikusi ditugu erokeri turistiko hau bertan behera uzteko. Eta mobilizazioak fruituak eman ditu. EAJko buruzagiek ez dute argi Guggenheim berriaren etorkizuna. Duela bi urte, Gernikako manifestaldi jendetsuaren harira, Bizkaiko Aldundiaren kargu nagusi Elixabete Etxanobek honelaxe zioen hedabideetan: “Oraindik ez dago ezer erabakita, prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko da, baina Guggenheim Urdaibain egingo da”.

STOP! Duela mende laurden ikerketa konparatibo batean parte hartu genuen “*Environmental Protest in Western Europe*” (Oxford University Press, 2003) eta bertan konturatu ginen euskal borroka ekosozialen garrantziaz eta indarrak. Alderaketan, Euskal Herrian, beste herrialde europarretan baino kanpaina eta ekimen ekologista gehiago topatu genituen. Ezetzaren boterea handia da,

eta maiz elite politiko eta ekonomikoek euren azpiegituren proiektuen aurkako erantzuna aurkitu dute euskal gizartean, lehen eta orain. Urdaibaiko Guggenheim kasuan, “entzuketa aktiboaren” ariketa-rekin saiatu dira urak baretzen, baina erantzuna ezin argiagoa izan da... STOP!

Demokrazia parte-hartzailearen erabilera neoliberalak (Jone Martinez Palacios. EHU, 2021) ez du funtzionatu, eta goitik behera etorritako eliteen enkar-guak (1.000 laguni elkarrizketa egin zaie) emaitza negatiboa ekarri du. Ukazioaren boterea handia da gure herrian.

Eliteen ikusmira estrabikoa: *Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!* Hertzainak taldearen kanta bat zen. Herri honen istorio ezaguna. Behin botere ingurura hurbilduz gero, gauzak ez dira berdin ikusten, begirada aldatzen da, batzuek *boterearen erotika* deitzen diote. Udazken honetan kalapita Jose Ignacio Perez jaunarekin heldu zaigu, EHUKo errektorea izan zenarekin eta orain Eusko Jaurlaritzaren Unibertsitate kontseilaria denarekin. Gure unibertsitateak izandako gobernu aldaketa ezkertiarri galga jartzeko erronka hartu omen du bere gain, eta ez du erreparorik izan Gasteizko Parlamentuan argudio sinesgaitzak erabiltzeko. Ez dira sasoi onak gure unibertsitate publikoarentzat, baina koiuntura ezkor honetan ere, borrokak bakarrik balioko du! ●

Errota handia



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Euskal Herriko hiriburuak urrez eta gaueko argiz apaintzen dira Eguberriak hurbiltzen arau. Denak karriketara luzatzen dira. Txurroak, gaztaina erreak eta plastikozko mila girgila saltzen dituzte, garaiak moltsak aise irekitzera deitzen gaitue-larik, bereziki haurrekin edo arrahaurrekin goxoki ibiltzen garenean. Batean, energia eta espazio publiko hondamendi hau ikustean sortzen zaizkigun pentsamendu xangrinak baztertzen ditugu eta xarmak funtzionatzen du: irri zozo batek urratzen digu begitarte.

Are gehiago (bizitzaren) errota handiarekin lurretik berrogei metroko goratasunean aurkitzen garenean... Bertigoa gaindituz, Aturri eta Errobi sutan mirets ditzakegu, katedraleko puntak zohar eta jauzi egiteko tentazioari uko egiten diogu. Inguruak distiratzten du, behean autoak txiki-txikiak eta jendeak inurri neurrikoak dira. Halako “omnipotentzia” sentsazio bategi habitatzen gaitu: ihesean gabiltza, sinesgarritasun izpirik ez duen eguneroko gure giza-abere izaera ahanzten dugu han goian, nor garen jakitera heldu gabe, orde!

Eta ortzi-mugan ilargi erdiaren begi keinu konplizea... ●

“Gure sasikumeak”



IÑAKI ETAIO
INTERNAZIONALISTA

“Sasikume bat da, baina gure sasikumea da” esaldia AEBetako Roosevelt presidenteari esleitzen zaio, Anastasio Somoza diktadoreari aipamena egiten ziona. Nikaraguako herriaren kontra gauzatutako errepresio bortitza eta krimenak publikoki defendatzea zaila zen, baina yankien interesetarako baliagarriak izatekotan justifikagarriak ziren.

Esaldi hori burura etorri zitzaidan José Jainagaren defentsan egindako adierazpen batzuk entzutean. Izan ere, estatu sionistaren Elbit Systems enpresari armak ekoizteko altzairua era ilegalen saltzeagatik, Sidenorren zuzendaria epaitegietara deklaratzera joan behar izanaren harira, Mikel Torres Jaurilaritzako bigarren lehendakariordea bere errugabetasun-presuntzioaren alde azaldu zen, euskal industriarekiko konpromisoa argudiatuta. Salmenta nola edo zertarako egin zen ezbaian jarri gabe, operazioa ez omen zela ilegala...

Euskal ekonomiaren motorra da industria, eta motor horrek osagai asko beste herrien odolez olioztatuta dauzka. Palestinarrak birrintzeko armamentua Eusko Label altzairuarekin ere egindakoa da, bai. Inperialismo yankia herri venezue-

larraren kontrako eraso militar bat presatzen ari den momentu berean, dozenak gerraontzi, munduko hegazkin-ontzi handiena, urpekoak eta milaka soldadu Karibeko kostetan pilatuta, berri positibotzat saltzen digute AEBetako indar militarretarako *Abrams* tanke berrietarako transmisio-sistema ekoizteko kontratua SAPAk eskuratzea. Beste herri batzuk odolizatzen dituzten merkantziak ekoizten dituzten euskal enpresen zerrenda ez da motza: Sener, ITP-Aero, Aernnova, MTorres izan daitezke ospetsuenak, baina armagintzarekin modu batean edo bestean lotura duten euskal enpresak 200dik gora dira. Herrien zapalketaz aberasten diren enpresen artean, ezin utzi aipamenik gabe palestinarren apartheid finkatzen duen CAF enpresa, momentu honetan euskal lotsaren enbaxadorea.

Euskal ekonomia oso lotuta egon da historikoki armagintzarekin eta horrela izaten jarraitzen du. Are gehiago, etorkizunerako apustua hori omen da, Zedarriak lobby-ak markatu zuen moduan, bertoko kapitalisten ordezkarien txaloen artean.

Rooseveltek bezain argi ez dute esaten, baina mezu bera helarazten ari dira euskal politikari eta iritzi-emaila asko, hemengo enpresa batzuen jardueren de-

fentsan agertzen direnean. Ulergarria da, kumaldi berekoak baitira. Arazoa dator giza eskubideaz, demokraziaz eta etikaz hitz egiten digutenean. Arazoa dator hipokrisia bertute egiten dutenean. Egia esan, Jainagaren falta nabaritu nuen San Mameseko palkoan Euskal Selektzioa - Palestina partida jokatu zenean.

Kapitalistez harago, zintzoak izan nahi badugu, esaldi famatu hura hemengo langile askori ere moldatu behar diegu: “Sasikume bat da, baina lana ematen didan sasikumea da”. Lana eman baino, gainbalioa lapurtzen dietela ez ulertzeaz gain, “gure sasikumea”-ren uste hori nahiko errotuta dago hemen ere. Langile gehiegik Roosevelt bat daramate barruan. Negozio batzuen ondorioak publikoki defendatzea zaila da, baina norberaren interesetarako baliagarria izatekotan justifikagarria izan daiteke. Familia bat mantendu behar izatea argudioa izan badaiteke, zergatik ez ulertu beste batzuek inperio bat mantendu behar dutela?

Zapalkuntza makineria horren zati bat direla jakinda, batzuk bere burua justifikatzen saiatzen dira, beste batzuk albora begira jartzen dira, eta beste batzuek palestinarreri ura bidaltzen diete sionismoarekiko konplizitate garbitzen saiatzeko. ●



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

HEMEN DAGO
NAFARROA



NAFAR
KALITEA

NAVARRA

Una forma de funcionar | Our own way | Gureak egiteko dugun modua

ReynoGourmet.com



Eskaneatu QR-a

GAZTEZULOk gazteei
informazioa eta
entretanimendua
euskaraz eskaintzen jarrai
dezan beste **25 urtez**



EUSKAL PIZKUNDEA

Zer behar dugu indarraldirako?

2024ko azaroan, Euskalgintzaren Kontseiluak atzeraldia zetorrela ohartarazi zuen, baldin eta indarrean diren joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak itzulikatzeko neurri egokiak epe laburrean hartzen ez badira. Euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi zuen. Pizkunde berri baten beharra mahai gainean jarri du. Testuinguru horretan antolatu du Bilbao Arena kirol pabiloian, abenduaren 27an, ekitaldi jendetsua, euskaltzaleak adoretzeko eta erakunde publikoei hizkuntza politika sendoak eskatzeko. Sei eragile eta euskaltzaleri galdetu diegu pizkunde baterako elementu giltzarriak zein izango liratekeen.

ONINTZA IRURETA AZKUNE  MARISOL RAMIREZ / FOKU



Euskararen soinu-banda

Ekitaldia:

Bilbao Arena kirol pabiloia
Abenduak 27, 17:00etan

Ekitaldian parte hartuko duten kultur gile eta sortzaileak:

Musikariak:

Amets Aranguren, Anari, Beñat Goitia 'Benize', Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, Julen Golarazena 'Flako Fonki', Maia Iribarne, Miren Narbaiza.

Aktoreak:

Edurne Azkarate, Itziar Ituño, Miren Gaztañaga eta Ramon Agirre.

Bertsolariak:

Ane Labaka eta Sustrai Colina.

Sarrerak 10 eurotan www.pizkundea.eus -en

Jasotako dirua artisten lana ordaintzeko eta ekitaldiaren gastuen zati bat ordaintzeko erabiliko da.

Orain dela urtebete, euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoa daudela adierazi zuen Kontseiluak. Ordura arte, errotonda, bidegurutze, eten eta moteltze moduko terminoak usu erabili ziren egoera definitzeko, nahiz eta irakurketa baikorragoak ere mantendu ziren. Kontseiluak hizkuntza larrialdia mundu mailako krisi sistemikoaren parte gisa hartu zuen eta bere egin zuen terminologia. Aurretik katalanek eta galiziarrek tan-ker bereko aldarrikapena egina zuten.

Larrialdi izendatu bai, baina ez etsitze-ko; ez da, behintzat, Kontseiluaren asmoa hori izan. Duela urtebete adierazi zuenez, "euskarari pizkunde berri bat emateko lehen argi-izpia ekartzeko deia da, itxaropenaren txinparta piztekoa".

Pizkunde berri baterako deia egin du Idurre Eskisabel idazkari nagusi duen erakundeak; lehen ere euskaldunek jakin izan dute ilunalditik argirako bidea egiten. Kontseiluak gogora ekarri du XIX. mendetik XX. menderako mundu aldaketa hartan euskaltzaleen eman zen pizkundea: Lore Jokoak, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza sortu ziren. Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Tene Mujika eta Elbira Zipitriaren garaia izan ziren. Goraldi hura gogor jo zuen olatu totalitarioak eta euskaltzaleek bigarren aldiz hizkuntzari eustea lortu zuten. Bigarren pizkunde hartakoak dira euskara batua, euskarazko irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, literatura, eta Ez Dok Amai-ru, besteak beste.

Orain larrialdi linguistikoa mahai gainean jarri dute, "baina ez da lantua jotzeko garaia". Kontseiluak bi pizkunde-aldietan euskaltzaleek aurrera egiteko mantendu duten itxaropena azpimarratu du, eta orain ere itxaropenerako deia egin du: "Euskaltzaleen itxaropena zabal-tzera, euskaltzaleon garaia dela esatera gatz". Era berean, aurreko bi pizkunde-aldietako euskaltzaleak gogoan, itxarope-na izateak zain egotearekin zerikusirik ez daukala argi utzi du Kontseiluak, hau da, ekiteko garaia dela: "Azken hamarkade-tan egindako bideari zintzo begiratu eta ondo zein gaizki egindakoetatik ikasi eta bide berriak abiatzeko unea da. Egungo erronkei kementsu heltzekoa".

EUSKALTZALETASUNA JARRERA POLITIKO

Kontseiluaren ustez, euskaltzaleen itxaropena ez ezik mundua ikusteko modu bat da, hizkuntza-supremazismoaren aurkako jarrera bat, hizkuntza berdintasunaren aldekoa. Euskaltzalea euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen alde dago, baina baita ere minorizatutako edozein hizkuntzaren alde. Justizian, berdintasunean eta askatasunean oinarrituta-ko ikuspegia azpimarratu du Kontseiluak, "mundua hain aldrebes dabilen garaioan, oinarritzeko jarrera politiko bat". Erakundeak euskaltzale izateko modu desberdi-nak azpimarratu ditu, eta keinu egin die euskara jakin gabe ondorengoei euskara emateko bidea ireki dutenei eta euskararen normalizazioan bultzatzaile izan direnei.

Euskaltzaleei dei egin die, berriz ere euskaltzaleen lehen lerrora ekartze-ko, "euskararen etorkizuna jokoan dago eta pizkunde berri bat emateko unea da".

Bakarkako euskaltzaleei dei egiteaz gain, Kontseiluak erakunde publikoen ardura azpimarratu ditu. Hizkuntza po-litika "anbiziotsuak eta sendoak" eskatu ditu, ofizialtasuna Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan, eta oldarraldi judizialari aurre egitea Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

BILBORA JOATEKO HIRU ARRAZOI

Lehenik eta behin, euskaltzaleen indar eta batasunaren erakustaldia egin nahi du Kontseiluak, larrialdi linguistikoa- ren testuinguruan: "Etsipenean jausi behar-rean, euskaraz bizi nahi dugula adiera-zi, elkarrekin arnas hartu, eta euskarari etorkizuna emateko prest gaudela era-kutsi".

Bigarrenik, gizarte osoari helarazi nahi dio euskararen normalizazioa eta biziberritzea "guztion ardura" dela, "gi-zarte berdintasunarekin, justiziarekin eta askatasunarekin lotutako beste auzi asko bezala".

Hirugarrenik, hizkuntza politiketan "ezinbestekoa eta premiazkoa den jauzi sendo bat" bultzatzea lortu nahi da Bil-boko ekitaldiaren bidez. Eragile institu-zional, politiko, ekonomiko, kultural eta sozialei, bakoitzaren erantzukizun eta erabakimenaren arabera, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren eta erabilera normalerako baldintzen alde egitea eskatuko zaie.

Pizkunde baten atarian: hizkuntza-politika berritzeko beharra

MALEN DOMINGUEZ ZABALA, TELESFORO MONZON

EUSKAL HERRIGINTZA LABORATEGIKO ZUZENDARI EXEKUTIBOA

A benduaren 27rako Euskalgintzaren Kontseiluak deitu duen ekitaldiak une historiko bat markatzen du: azken hamarkadetako ziklo politiko, sozial eta linguistikoa-ren agortzea, eta, aldi berean, aukera bat, euskararen biziberritzean jauzi kualitatiboa egiteko. “Pizkunde” deitu diote, baina pizkunde batek ez du soilik bultzada emozional edo sinbolikoa behar; norabide politiko eta sozial argia behar du, herri honek bere buruari egiten dion galdera potoloari erantzuteko: zertan eta nola berrasmatu behar dugu hizkuntza-politika, duela 40 urteko baldintzak errotik aldatu direnean?

Telesforo Monzon euskal herrigintza laborategiaren ikuspegitik, eta Txillardeggi Gogoeta Gunean egiten ari garen lanetik abiatuta, gero eta agerigarria da egungo markoaren mugak ez direla arazo operatibo hutsak; izaerazko mugak dira. Euskara normalizatzeke egitura juridiko-instituzionalak, eredu sozioekonomikoak eta eragin ideologikoek ez dute euskara herri-hizkuntza gisa biziberritzeko inertzia sortzen. Horregatik, pizkundearen klabe nagusia ez da soilik gehiago egitea, sakonki beste modu batean egitea baizik.

Lehen elementu estrategikoa subiranotasun linguistikoa da. Ez independentzia formala, baina bai hizkuntza-politikaren ildo nagusiak herri gisa erabakitzeko gaitasuna. Gaurko mar-koan –autonomia erkidego ezberdinek eta estatuen arauketak baldintzatuta– zatikatuta eta modu desorekatuan garatzen da hizkuntza-politika. Hori gaingitu gabe, nekez egin dezakegu bide kohesionaturik. Subiranotasun linguistikoa esan nahi du euskararen lurralde osoa kontuan hartzea, politika guztiak komunitatearen ikuspegitik diseinatzea eta eskumen maila guztien arteko estrategia bateratua eraikitzea.



Bigarren giltza normalizazioaren ikuspegi integral berria da. Duela hamarkada batzuk hezkuntza eta administrazioaren euskalduntzea izan zen ardatza; gaur, ordea, badakigu horrek ez duela bermatzen erabilera sozial masiboa, ez eta transmisio naturala ere. Aurrean dugun erronka da euskararen ekologia sozial osoa eraldatzea: lan mundua, espazio digitala, kultur industria berriak, hiri-inguruneak, eta, batez ere, gazteen aisialdi eta identitate kodeak. Euskararen aldeko borroka ez da soilik politikaren eremuan jokatzen; eguneroko bizitzaren eraldaketa sakonean dago gakoa.

Hirugarren elementua justizia linguistikoa da. Euskara ez dugu soilik defendatzen identitate komunitario gisa, baizik eta eskubide- eta berdintasun-arazo gisa. Herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidea ez da oraindik erreala, eta euskararen aldeko politikak, askotan, aukerako politikatzat hartzen dira, ez oinarritzko eskubideak bermatzeko mekanismo gisa. Justizia linguistikoa printzipio politiko bilakatzaren denean, euskararen aldeko neurriak ez dira salbuespen, baizik eta oinarritzko egituraren parte.

Laugarrenik, ezinbestekoa da herri-boterearen dimentsioa berriz

kokatzea. Institutuzioak beharrezkoak dira, baina azken urteetan instituzioen arabeko euskalgintza nagusitu da, eta herri-eragileak albo batean geratzeko arriskua dago. Pizkunde batek ezin du soilik gobernuen borondatearen gain eraiki; komunitate aktibo eta autonomo baten indarra behar du, euskara ez soilik helburu, baizik eta praktika politiko eta sozial partekatua bihurtzen duena.

Hizkuntza-boterea dimentsioari dagokionean, euskarak periferiatik botere guneetara salto egiteko beharra azpimarratu nahi dugu. Beste era batera esanda, euskal botereak/botereek euskaraz jardun beharra, eraldaketa demografikoen garaian ezinbestekoa izango baita herri honetara datozenek euskara eskailera soziale-rako elementu gisara ikustea.

Eta azkenik, imajinario politiko berria behar dugu. Txillardegik berak zioen hizkuntza ez dela tresna neutroa, beste mundu baten atea baizik. Euskarak ez du soilik komunikazioa eraldatzen; mundua ulertzeko modua bera aldatzen du. Horregatik, pizkunde ezin da soilik teknika izan: herri proiektu baten berraktibazioa izan behar du, non euskara ez den elementu kulturala soilik, baizik eta etorkizun politikoaren giltza.

Abenduaren 27ko ekitaldiak aukera emango du gaitz kolektiboa eta itxaropen partekatua plazaratzeko. Baina benetako galdera beste bat da: prest al gaude hizkuntza-politika eta herrigintza logikak sakonki berrasmatzeko? Prest al gaude ohiko eremuetatik ateratzeko, eta euskara berriz ere herri baten zentro politiko bihurtzeko?

Pizkunde ez da lelo bat. Pizkunde erronka bat da. Eta erronka hori ate joka daukagu.

Gure txinpartak

IRATI ICIAR, TAUPA EUSKALTZALEEN MUGIMENDUKO LEHENDAKARIA

Sua piztuta mantentzea ez da edonolako kontua. Egur lehor eta trinkoa behar izaten da. Tentuz jarri behar izaten da, pixkanaka eta egurrak arnasteko tarreak utziaz, bat-batean egur gehiegi jartzeak sua ito bailezake. Txingar-ohe sendo bat jartzea komeni da, beroari eutsi eta egur berria piztu ahal izateko. Haize zakarra dabilenean, babesa jarri behar izaten da, sua sakabatu edo itzal ez dadin. Sua piztuta mantentzea ez da edonolako kontua, ez: etengabeko zaintza eta ahalegina eskatzen ditu, sekulako oreka lana. Eta hori horrela izanda ere, nahikoa al da noizbait piztu zen horri eustea? Nahikoa al da bizirautea?

Belaunaldi bakoitzak haren aurrekoek piztutako garra jasotzen ditu, eta horrekin batera, atzetik datozenei sua zein egoeratan utziko dien erabakitzea dagokio. Azken hamarkada luzeetan, belaunaldi bakoitzak berea eman du euskararen biziberritzean, unean uneko erronkei hobekien jakin izan duen moduan aurre eginez, batzuetan eutsiz, eta beste batzuetan euskararen garra indartuz. Garai ilunetan, pizkunde eta loraldiak eragiteko gai izan gara euskaltzaleok.

Korrontearen kontra aritu izan ginen, eta horrela ari gara. Globalizazioak eragindako korronte homogeneizatzailea hizkuntza gutxitu eta txikien kontrako norabidean dator, eta geroz eta modu basatiagoan kolpatzen ari da hegemonikoak ez diren hizkuntzak, kulturak eta herriak. Jokaleku honetan, egoera soziolinguistikokoaren bilakaera arduraz bizi dugu: euskararen ezagutza, oro har, goranzko bidean badabil ere, hitzun askok euskaraz eroso jarduteko gaitasun kamutsa du, erabileran ez da aurrerapauso esanguratsurik eman,



eta eremu euskaldunenetan galerak gertatzen ari dira. Gauzak ezberdin egiten hasten ez bagara, atzera egiteko arriskua daukagu. Eta argi esanda, horretarako eskumena ere mugatu egin zaigu: Nafarroako zati handi batean eta Ipar Euskal Herrian euskara hizkuntza ofiziala ez izateak ondorio larriak ditu hizkuntza politika iraunkor eta emankorra egiteko orduan, eta hori aski ez, eta azken aldian bizi dugun oldarraldi politiko eta judizialak ikusarazi digu, euskara ofiziala den eremuetan ere, euskara biziberritzearen aldeko lege babesak arrakalak dituela.

Kasualitatea al da oldarraldi hori indartu izana noiz eta batzuk eta besteok, han eta hemen, jauzi baten premiaz ari garenean? Eszenatoki berriak irudikatzen ari gara, baina sua babesten, orain arte lortutakoa defendatzen nahi gaituzte. Pentsatzekoa da, akaso, oldartzen diren horiek benetan sinesten dutela badagoela jauzi egiteko aukera, eta horregatik tematzen direla aukera hori zapuzten. Zeren, badaude sinesteko arrazoiak: mende erdiko ahalegin kolektiboari esker, euskararen ezagutza ia orokorra da eremu askotara belaunaldi gazteetan; beste garai

batzuetan ez bezala, egitura publiko eta sozial asko dugu antolatuta euskararen alde, baita, euskaraz jakin edo ez, aldeko agertzen den gehien-go sozial baten bultzada ere; eta sarri baldintza kaxkarretan bada ere, kalitate handiko kultura ekoizten ari den sektore bat dugu. Gogora dezagun euskarak bizi izan dituen pizkundek eta loraldietan rol erabakigarria izan duela kulturgintzak.

Ez gaitzezen erratu; ez da suari eusten geratzeko garaia, garra indartzeko baizik. Askok baitugu irabazteko: euskaraz bizi ahal izango den herria herri hobea izango baita; justuagoa, berdinzaleagoa, kohesionatuagoa, eta zoriontsuagoa. Indarrak batzeko garaia da, eragin nahi dugun tamainako eraldaketa gorpuztekoa. Euskara elkarte eta euskaltzaleok jarraituko dugu ausart jokatzeko, geure burua eta mugimendua berrasmatzen ahaletzen, herri proiektu ilusionagarri baten alde ekiten. Konspiratzeko unea da, elkarrekin amestekoa, eta horretarako, hitzordu garrantzitsu bat dugu euskaltzaleok abenduaren 27an: milaka buru eta bihotz taupataupa ariko gara Bilbao Arenan, etorkizun hobe bat irudikatzen, gure txinpartak pizten.

Izateak eta izenak

AIZE OTAÑO LIZARRALDE,
AEK-KO ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEA

Karmen Ugartemendia Amena-bar, Asteasun jaioa 1925eko urriaren 20an, eta Donostian zendua 2019ko abuztuaren 22an. Elena Marin Garcia, Lodosan munduratu 1927ko otsailaren 16an, eta Donostian zendua 2016ko urtarri-laren 11n. Atrebentzia handiz edo ez, horrela erabaki dut idazkiari ekitea, izen-abizen horiek bina izate eta izaera gordetzen dituztelako. Biak ala biak oso gertukoak, eta neuretzat, bederen, oso esanguratsuak. Bata, *amoña*: aitaren ama; bestea, *amama*: amaren ama. Egun, alboan ez ditudan arren, asko dut haienetik. Nola esan, nola adierazi... Haiei esker naiz naitzena. Arrazoiak asko dira, baina, nire ustez, garrantzitsuena hauex: euskara naiz. Hori, ez bairrik gabe, haiei esker da. Ni hala izan nendin, konta niezazueke bizitza osoan zenbat hau-tu egin zituzten eta, lekukoa hartuta, haien seme-alabek ere beste zenbat erabaki hartu zituzten... Ez naiz horretan luzatuko. Labur esanda, haiei zor diet izatea.

Euskara naiz, eta *Euskara gara*. Bi hitz baino ez, baina esangura sakona. Hizkuntzak, gure kasuan euskarak, eraikitzen eta ardazten du pertsonon izaera, pertsonon esentzia bera. Eta gure esentzia –euskarak ematen digun esentzia, hain justu– aldaezina edo aldagaitza da. Zer garen aldatuko balitz, ez genuke geure burua ezagutuko, geure bizitzaren zentzua galduko genuke. Katastrofikoa litzateke, bizitzaren zentzuak ikusarazten digulako balio dugula, badugula leku garrantzitsua munduan, ez garela, besterik gabe, bat gehiago. Arin esanda, izaerak/esentziak existitzeko modua marrazten digu. Horiek zimendutzat hartuta, bizitzaren zentzuak norabide bat ematen digu; hortaz, ezin dugu ezeztatu euskarak ardazten gaituela.



AEKn argi baino argiago diogu: euskara guztiontzako aterpe irekia eta eroso da, kohesio sozialerako tresna. Noski, erreminta baino gehiago ere bada. Pertsonok garena da euskara (eta alderantziz): gure ezaugarri edota ezaugarri-multzoaren muina. Hala, euskararen etorkizuna jokoan den honetan, guri dagokigu Euskal Herriko komunitatearen existentziaren aldeko borroka hauspotzea eta indartzea. Garai bateko borrokaren ondoko belaulaldia gara. Denok ditugu (edo izan genituen) amamak, amaxiak, amonak, aititak, aitatxiak edota aitonak; izan zirelako gara, ezta?

Tamalez, garai hartako lorpenek ezerezean geratzeko arrisku larria dute. Alta, inondik inora ezin gara etsipenean erori, hori ez da aterabide. Itxaropena eta ekimena ekarri behar ditugu lehen lerrora. Eta, beleak beti bere etxera egiten duen lez, neuk ere hala egingo dut. AEK sorreratik bertatik izan da erakunde ekintzaila, eta ez da hizkuntza bat irakastera mugatzen; AEK herri-mugimendua da, herri baten esperientziari eta historia hurbilari oso lotua. Gure aita-amen

garia, euskaltzaletasunak euskarari beste Pizkunde bat eman zionean, urrats logikoa eta naturala izan zen alfabetatzearen eta euskalduntzearen premia hauspotzeko eta antolatzeko bultzada. Horixe dagokigu egun egitea, presa baitugu.

Bai, presa dugu, Euskal Herri euskalduna lortzeko begira, Pizkunde berri bat abiatzeko. Euskararen normalizazioa eta biziberritzea auzi politikoak dira, eta arduradun politikoei dituzte prozesu horretan eragiteko eskumena, gaitasuna, boterea eta lidergoa. Orain da unea lehentasunezko politika publikoak martxan jartzeko norabide horretan. Guk urteak daramatxagu, herri-dinamikan eta lurraldetasunean (nazio-ikuspegian) oinarrituta, helduen euskalduntzea lehen lerrora ekarri behar dela, behar dutela, oihuztatzen. Euskal Herri osoan, bizitzaren alor guztietan, euskara nagusi izango bada, lehenbailehen eta lehentasunez, euskararen ezagutza unibertsalizatzeko era eta baldintzetan jarri behar dugu arreta. Ekiteko momentua da, eta ez ahortzi euskararen normalizazio-prozesuan erantzukizun partekatua ditugula; urrats bateratuak egin behar ditugu, euskarak euskaltzaletasun aktiboa behar-beharrezkoa du.

Euskarari zor diogu geure izatea; hizkuntzarik gabeko herria ez da herri izango. *Amoña* eta *amama*, zuen lekukoa hartuko dut, noiz baino argiago dudalako orain nire txanda dela; bai, jakina, gure txanda da, egungo euskaltzaleon garaia da. Euskarak pizkunde berri bat behar duelako, guk, AEKko ipurtargiok, lekukoa eskuan daramagu (nola ez), zeren eta, orain ez bagara, noiz izango gara? Abenduaren 27an, bete dezagun –guk, nork bestela?– Bilboko Bilbao Arena. Izan zirelako gara, garelako izango dira!

Beharra, eragile handi

JOXERRA OLANO ETXABE,

BARAÑAINGO IKA-KO SAHATS EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

Urte pila galanta da euskara “bidegurutzean” zegoela entzuten hasi ginela. Euskararena “gurutze-bidea” zela esaten genion guk elkarri, etsi-etsian, jostari, Nafarroako goialde hauetan herritarrak euskalduntzen belaunetarainoko lokatzetan sartuta genbiltzanok. Orduan ere, haize kontra ari ginen, UPNren gobernuaren hizkuntza politika eragingarri bezain konplexurik gabeak atertuko zuen inolako esperantzarik gabe, gainera, baina hainbat gazte eta heldu batere beharrik gabe euskara ikastera nola zetozkigun ikusteak ematen zigun pozak barrenak gozatuta. Ez ziren guk nahi hainbat, jakina, baina bai gobernu haren neurri politiko suntsigarri, ausart eta iraingarriak hartzen zituztenek espero baino gehiago.

Baina, hara, zer den bizitza. 2015eko maiatzean, guk gutxien espero genuenean, demokrazia burgesetan oso tartean behin gertatzen den txiripa horietako baten ondorioz, UPNrik eta PSNrik gabeko gobernua osatzeko adinako gehiengoan lortu zuten Nafarroa Garaiko alderdi politiko ustez euskaltzaleenak: EH Bilduk, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak. Ez dakit euskara bidegurutzean edo beste nonbait ote zen; baina, lau indar politiko horiek adostu zuten gobernu-akordioa irakurrita, garbi ikusi genuen euskararen ofizialtasunarena behintzat ez zela ezinbesteko jotzen zituzten adostasunen artean. Horrenbestez, Nafarroako euskaldunok, gure bizitokia zein zen, beste lau urtez, bigarren, hirugarren edo laugarren mailako herritar izaten segitu genuen, euskarari ez baitzioten Espainiako Estatuaren uztarriaren pean lor litekeen bigarren mailako ofizialtasun mendre hori ere eman.

Berehala erakutsi ziguten, bestalde, zer-nolako hizkuntza-politika txapel eta geza egiteko asmoa zuten 2015eko maiatzean hasi zuten agintaldi hartan,



GORKA RUBIO / FOKU

inor euskara ikastera behartuko ez zue-na, noski. Erdaldunari euskaraz jakitea gero eta beharrezkoagoa izango zela pentsaraziko zion neurri politikorik ezin zutela hartu esan zitzaigun, erdaldunen hizkuntza-eskubideak errespetatu beharra zegoela, ez izateko euskaldun “suminduak”, pazientzia izateko, hurrengo agintaldian ausartago jokatu zutela... Eta halaxe joan ziren aukera galduen lau urte haiek. Tristeza bada ere, ezin esan horrek guztiak ustekabeen harrapatu gintuenik. Ez gure buru-argitasunagatik, esan beharrik ere ez dago, tratatibide luzeak ematen duen eskarmentuagatik baizik.

Politikari ustez euskaltzale haien ahotan entzuten hasi ginen ez behartzearen, erakartzearen, seduzitzearen eta abarren musika hedatu eta dotoretu egin zitzaigun hurrengo sei urteetan Nafarroa Garaian. Orduan, gobernua gidatzen zuen PSNrekin “pedagogia” egitea ezinbestekoa zela ohartarazi ziguten, horretarako diskurtso egokia erabili behar zela, eta pazientzia “pazientzia estrategikoa” bilakatu zitzaigun. Pedagogiak pedagogia, PSNrik gabeko gobernu mirarizko haren hizkuntza-politika urardotu hark ez du, bistan denez, 2019az geroz-

tik hobera egin, ez euskaldunon legezko gerizari dagokionez, eta are gutxiago neurri politikoen bidez herritar erdaldunei euskara gero eta beharrezkoagoa izango dela sentiarazteari dagokionez. Beharraren akuilua han izango da, beraz, 2015etik, hautsak hartuta, Euskara-bidearen egoitzaren ganbarako zokorik gordeenean. Eta Nafarroako euskaldunok, bitartean, bidegurutzean, gurutze-bidean, larrialdian, geldotze-aroan, periferian edo hala moduzko linboan.

Hori aski ez eta badirudi Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-politikako arduradunak ere kutsatu egin zaizkigula, “desioa”, “izaera inklusiboa” eta ezpal bereko beste zenbait ale eder hitzetik hortzera darabilzkitzute eta. Eragile handi omen den “behar” famatu horren arrastorik ere ez hor ere, komunikazio kanpaina bikainen bidez erdaldun hutsak euskara ikastera txoraturik etorraziko dituztelakoan, nonbait. Araugile eta legegile behar lu-keena, limurtzaile. Eta limurtzea beste biderik ez dugunok, neurri politikorik hartzerik ez. Ez dugu lantegi makala, ez dugunez lantegi makala!

Horregatik guztiagatik, alegia, gure herrian ganorazko hizkuntza-politikarik ez dugulako, eta Iruñeko, Gasteizko eta Madrilgo gobernuak eusten dieten euskal alderdi politikoei euskara lehenesten ez dutelako, besteak beste, abenduaren 15ean, 19:00etan, Nafarroako Foru Parlamentuaren atarian elkartu gara, behar-rrak akuilatuta beste behin ere, euskararen ofizialtasuna eskatzeko eta Nafarroa Garaiko euskaldunoi hizkuntza-eskubideak oraindik ere etengabe urratzen zaizkigula salatzeke; eta abenduaren 27an, Bilbon, Bilbao Arenan, geure bu-ruari orain ere euskaltzaleon garaia dela oroitarazteko eta gure herrian gure hizkuntzan bizitzeko beste bizkorraldi bat behar dugula lau haizetara zabaltzeko. Hortaz, euskaltzaleok, sarri ikusiko dugu elkar, beharra eragile handia baita.

Non dago biziraupenaren langa?

MALORES ETXEBERRIA

2025a amaitzeaz, bi zita garrantzitsu jarri dizkigute euskaldunoi. Bata Durangon, abenduaren 6rako Euskal Herrian Euskaraz taldeak deitutako manifestazioa –artikulu hau argitaratzerako egina izango dena–. Bestea Bilbon, Euskalgintzaren Kontseiluak antolatua, aspaldian itzali samar dagoen sua berpiztea duena helburu, hizkuntza-politiketan ezinbestekoa eta premiazkoa den jauzi sendo bat bultzatzeko. Ea euskaldun kopuru handi bat biltzen garen bi ekitaldietan.

Azken bizpahiru urteotan urak mugitu diren sentsazioa daukat nik. Kontrako haizeak gogor jo du, bazterrak astinduz, eta gorde antzean zeuden iritziak azaleratzeko, eta azterlan eta iniziatiba berri batzuk abiarazteko parada eman du. Beste batzuen artean, Iñaki Lurrebaso Biteri soziologoaren aportazioa nabarmenduko nuke nik, urte mordoska batean indarrean egon den paradigma eta diskurtsoa kolokan jarri dituelako zorroztasunez. Gaitasunean asko aurreratu dugula eta hiztun berri dezente irabazi, baina horrek ez duela erabilera hobetu, ez espero adina behintzat. Hori izan da hitzetik hortzera erabili dugun ideia. Lurrebasok, berriz, fokua gaitasunaren ahuldadean jarri du, eta gaitasuna erabilera bihurtuko bada, hura hobetu behar dugula azpimarratu du. Jario eta aberastasun handiagoko hiztunak behar ditugula, euskaraz erraz egiten dutenak, eta horretan jarri behar dela indarra, besteak beste.



Larrialdi linguistikotzat hartua zuen dagoeneko Euskalgintzaren Kontseiluak egungo egoera eta Lurrebasok datu zehatzekin frogatu du egoera benetan oso muturrekoa dela eta gertuago gaudela Irlandan bertako hizkuntzak duen egoeratik Katalunian katalanak duenetik baino. Eta, gainera, Irlandarako bidea autopista zabala dela eta Kataluniarakoa, berriz, bidezidor estua eta malkartsua. Orain artekoa egiten segitzekotan, amildegitik askoz ere gertuago gaudela salbaziotik baino.

Ematen du bateko eta besteko eragile, euskaltzale eta erakundeak bat gatzozela egoeraren larriarekin eta zutotik ateratzeko zerbait egin beharrekin. Larrialdi linguistikoa eta jauzia dira orain bolo-bolo darabilzkigun hi-

tzak edo kontzeptuak. Zerbait hori zer da, ordea?

Galdera horren bueltan, Bea Salaberrik, aldizkari honetan, otsailaren 26ko zenbakian *Bretoiera* izenburupean idatzitako iritzi artikuluak datorkit burura. Bretoierak bizi duen egoeraz ari zen, hirurogeita hamar urtean jasan duen galeraz. 1950eko hamarkadan milioi bat hiztunetik gora izatetik 104.000 izatera pasa direla zioen. Gaur egun %2,7 omen dira hiztunak –eskualderen batean %5–. Hiztun horiek inoizko gehien erabiltzen omen dute bretoiera, larrialdiaz jabetuta, eta biztanleen atxikimendua oso altua omen da, %60koa. Egoeraren aurrean dauden diskurtso kontrajarriei buruzko hausnarketa interesgarriaren ondotik galdera honekin amaitzen zuen artikuluak Salaberrik: Noiztik goiti kontsideratzen da hizkuntza bat hondarrera heldua dela?

Euskararen egoera bretoieraren endekapenarekin alderatzeko inolako asmorik gabe, beste galdera hau planteatuko nuke nik: Noiztik goiti kontsideratzen da hizkuntza bat edo hiztun komunitate bat salbaziorako bidean jarri dela? Zenbatekoak izan beharko lukete gaitasunak, erabilerak eta atxikimenduak, eta nolakoak haien ezaugarriak. Eta zenbat denbora daukagu eszenatoki berri horretara iristeko? Hor dago biziraupenaren langa, hizkuntza-politikak definitzeko erreferentzia ezinbestekoa. Markatu dezagun.

2009, 2010 eta 2011* urteetan
jaiotako gazteentzat!

*aukera hau bakarrik Lapurdi,
Baxe-Nafarroa, Zuberoa eta
diasporako gazteentzako.

Izena emateko azken eguna:
2026ko MARTXOAK 2

EuskarAbentura
espedizioa
2026



Hautagaitza aurkezteko:
BIDEOA + PROIEKTUA

euskarabentura.eus
→ izenematea@euskarabentura.eus



Zapalkuntzaren kontzientzia hartu, kolektiboki antolatu eta borrokak piztu!

INTZA GURRUTXAGA ETA IRAIA DE LA TORRE,
EHE-KO KIDEAK

Euskarak gaur arte bizirautea miraria da; baina ez ausazko miraria, izerdi askori esker lortutako miraria baizik. Eta euskararen aldeko pizkunde berria harrotuko badugu, lehen bezala, orain ere borroka izango da horretarako bidea. Historian aldi desberdinak egon badira ere, aldatu ez dena jasaten dugun egiturazko zapalkuntza da. Azken mendeotan, euskaldunok estrukturaliki zigortuak, baztertuak eta gutxietsiak izan gara eta egoera horren aurrean konfrontaziorik sortu ezean, nekez egingo dugu aurrera.

Azkenaldian, alderdi nahiz sindikatu euskarafoboek markoa irauli dute eta euskaldunok pribilegiatu bihurtu gaituzte. Euskarafobo horien artean daude, hala nola, PSOE, PP nahiz Vox alderdi politikoak eta CCOO nahiz UGT sindikatuak. Kontakizun horren bitartez, errealitatea desitxuratu eta euskaldunon hizkuntza eskubideak murriztu nahi dituzte; azken buruan, euskaldunon desagertzea sustatu. Gainera, eskutik dute legedia; bai, legez ari dira gu zapaltzen. Aurrez aipatu modura, egiturazkoa baita bazterketa. Frantziar eta espainiar konstituzio linguiziden joko arauetan mugatuta gaude; beti korrontearen aurka igeri egitera kondenatuta. Apurrak lortzeko ikaragarri borrokatzera behartuta eta pixka bat lasaitu orduko, dena galtzeko arriskuan. Halaxe gaude. Horregatik, konplexurik gabe, erasotzaile horiek zuzen eta tinko seinalatzea, zapalkuntza agerian uztea eta Euskararen Errepublika, independentzia, helburu hartuta, desobedientzia eta intsumiso jarrerak indartzea nahi-taezkoa deritzogu.

Geure gorputzetan eta egunerokoan bizi dugu zapalkuntza. Modu ugaritara erasotzen gaituzte: begiraden edo komentario desagokiak bidez, osasun etxean euskarazko arta edo epaite-



gian geure buruak euskaraz defendatzea ukatuz, hezkuntza euskalduna edo azterketak euskaraz pasatzea debekatuz... Baina, mugimendu feministak ondo erakutsi modura, pertsonala politikoa da eta norbanako gisa jasaten ditugun eraso horiek egungo sistemaren ondorio dira. Horregatik guztiagatik, euskaraz bizitzeko hautua hautu politikoa da; egungo errealitatea iraultzeko eta zapalkuntzarik gabeko Euskal Herrirantz bidea egiteko hautua, hain justu.

Azken hamarkadetan, ordea, euskararen auzia despolitizatze joera orokortu izan da. Instituzioetatik diskurtso horrek indarrean jarraitzen du; horrek, nolabait, euren ardura politikoak betetzetik salbuesten baititu. Horren adierazle dira orain aste batzuk Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Hizkuntza Politikako sailburuak iradokitakoak: “Gizarte arruntak zelan jokatzeko du eta zergatik? Hainbeste jende euskara jakinda, zergatik ez du erabiltzen? Zer dago horren atzean? Hori jarrera bat da”. Noski jarrera bat dela, egiturazko zapalkuntzaren ondoriozko jarrera bat eta, hain zuzen, Euskal Herriko agintari politikoei dagokizue horren aurrean ardura politikoak hartzea. Nafarroa

Garaian, datorren urtean beteko dira Euskararen Foru Legea indarrean jarri zenetik 40 urte. Lege bidegabea, jaioterriaren arabera lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako herri-tarrak sortzen dituen legea. Eta hala ere, Nafarroako Gobernuak Maria Chivite lehendakariari entzun behar izan diogu, euskarari erreferentzia eginez, eurena ez dela “inposizioaren” eredua. Nafarroan espainola ez al da ba politikoki inposatzen? Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Xiberoan ere euskarak ez du ofizialtasunik, bigarren mailako hizkuntza gisa da tratatua. Folklorizazio haratago, euskararen erabilera ez dago normalizatuta ez administrazio publikoan, ez gainerako esparruetan. Pentsa, Baionako Euskal Museoa bertan, bigarren mailan dago, frantse-saren atzetik.

Hala bada, euskararen aldeko pizkunde berrirako hiru urrats dira guretzat ezinbestekoak: bizi dugun egoeraren kontzientzia hartzea, kolektiboki antolatzea eta tokian toki, bakoitzari dagokion mailan eta moduan, borroka piztea. Dena dugu irabazteko, beraz, has gaitezen modu burujabearen pentsatzen eta ekiten; Euskal Herriko Euskal Herri euskalduna, Euskararen Errepublika, eraikitzen!

Trantsizio energetiko koloniala

"Bai, zuen enpresak han daude eta gu izorratzen ari dira"

Trantsizio energetikoak hartu du lehen lerroa, baina, hau trantsizio bat al da? Ekologikoa al da? Argi dagoen bakarra da koloniala dela. Orain arteko logika estraktibistaren jarraipena da eta material horien jatorrizko herrietan eragin suntsitzaile ikaragarria du. Ipar globalaren erosotasuna justifikatzen jarraituko dugu? Hego globalaren lurra eta bizimodua suntsitzen jarraituko dugu? Honakoa Alexandra Bermudez (Kolonbia), Zenayda Serrano (El Salvador) eta Dalila Argueta (Honduras) ekintzaile sozialek Kinka Sareak urrian antolatutako *Autonomiatik Erein* topaketetan egin zuten mahai-inguruan jasotako errelatoaren lagin bat da, ahalik zintzoen itzulia.

 ELI PAGOLA APEZETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zergatik da trantsizio energetiko-ekologikoa koloniala?

ALEXANDRA BERMUDEZ (KOLONBIA): Guk hirurok asko dugu amankomunean, besteak beste, gure lurralde den Abya Yala. Eta eztabaidaren parte da ulertzea non dagoen Abya Yala eta zer paper jokatzeko duen produkzio kapitalistaren nazioarteko lan-banaketan. Abya Yalan asko dugu langile klasearen existentzia definitzen duen kondizio hirukoitzetik: izan gara ekonomikoki ustiatuak, sozialki zapalduak eta politikoki menderatuak. Kul-

turalki estigmatizatuak eta suntsituak ere izan gara eta ezinbestekoa da ikuspegi hori izatea garapen jasagarriaz eta natura babesteaz hitz egiten dugunean. Batez ere, jasagarritasuna eta zaintza aktore hegemonikoek planteatzen dutenean eta estrategikoa denean ingurumen- edo energia-meatzaritza sektorerako eta metaketa kapitalistarako.

Trantsizio energetikoaren eztabaidak erdigunean du erdieroaleetarako mineralen ekoizpena, beharrezkoak direnak 4.0 eta 5.0 industrian. Estatu

Batuak dira erdieroaleen ekoizpenaren %55aren arduradun eta, orain, Txina nagusitasun hori zalantzan jartzen ari da. Konexio digitalean sakondu nahi da, Big Data, ordenagailuak, mugikorak, auto elektrikoak, Google, Amazon, Apple... eta mineral eskari izugarria duen eredu horretan guztian. Industriaren laugarren iraultzaz hitz egiten da eta horrek berarekin dakartza herrien zututze etengabea, lurraldeak irekitzea bertan sartu eta bertako baliabide eta natur-ondasunak ateratzeko eta, jaki-



Alexandra Bermudez (Kolonbia), Dalila Argueta (Honduras) eta Zenayda Serrano (El Salvador) ekintzaileak, Uliako Mintegien Parkean.

na, indarkeria, arpilatzea eta lapurreta iraunkorra. Duen aberastasuna medio, Abya Yala lurralde estrategikoa da erauzketarako, batez ere, Amazonia. Ez da kasualitatea bertako egoera gero eta konplexuagoa izatea azken urteotan.

Kapitalaren metaketa helburu duen eta transnazionalen intereserako den lurraldeen meneratze hau arrisku larria da herri indigenentzat, afro-ondorengoenentzat eta nekazarietentzat; batik bat, Amazoniatik gertu daudenentzat, alegia, Hego Amerikaren %40arentzat. Salatzekoa da, baita ere, gure estatuak meatzaritza ustiatetarekin eta neoestraktibismoa berriaraztearekin duten konpromisoa.

Meatzaritzaz gain, trantsizio energetikoaren gaian kezkatzen gaituena da Ipar-Hego desoreka mantentzen duela. Estraktibismo berri bat dago eta horrek baliabideen erauzketa areagotu du gure herrialdeetan eta ingurumen inpaktu eta

“Trantsizio hau faltsua da. Eredu kapitalistaren krisi berri bat da, ekonomia berdez mozorrotua eta negozio-enpresa guztien zuritze berdea. Neoestraktibismoa ari da gertatzen ekonomiak eta eredu ekonomikoak bera izaten jarraitzen baitu, leku beretik edaten jarraitzen baitu”

**Alexandra Bermudez
(Kolonbia)**

inpaktu sozial handiak eragin ditu, onura ekitatiborik utzi gabe.

Begira diezaiozun, baita ere, erredukzionismo klimatikoari. Trantsizio hau oinarritzen ari zarete, nagusiki, negutegi efektuko gasen emisioa gutxitzean, entzungor eginez beste arazo batzuei, hala nola, gure lurren desertifikazio, uraren kutsatze, biodibertsitatearen galera eta komunitateen desplazamenduari. Eta, jakina, teknokraziaren eta bazterkeriaren gaia ere hor dago, non Ipar globalarekiko dependentsia mantentzen den eta ez den bermatzen aurrez aipatutako komunitate kaltetuenen parte-hartzea.

Sektore batzuentzat hau ikus daiteke garapen jasangarrirako bide gisa baina, ez bada justizia sozialaren eta parte-hartze komunitarioaren ikuspuntutik kudeatzen, Ipar-Hego desoreka historikoak erreproduzitzen jarrai-



Alexandra Bermudez: "Trantsizioa ez dago pentsatua gure lurraldeko komunitateek dituzten premietan".



Dalila Argueta:
"Europari bost zenbat
komunitateren gainetik
pasa behar duen bere
trantsizio bedeinkatua
egiteko".



Zenayda Serrano: "Abya Yalak egin ditu proposamenak bizitza eta garapen ereduaren gainean baina ez dira entzuten".

tuko du. Trantsizioa ez dago pentsatua gure lurraldeko komunitateek dituzten premietan, ezta izan dezaketen sarbidean ere, baizik eta baliabideen arpilatzean eta materialen ekoizpean oinarritutako beste negozio mota batean; onura sozial, lanpostu eta garapenez mozorrotuta.

ZENAYDA SERRANO (EL SALVADOR): Ez gara lurralde pobreak, baizik eta pobretuak. Oraindik ere "hirugarren munduko" edo "garapenean dauden herrialde" deitzen zaigu, zer eta historikoki gure baliabideetatik desjabetuak izan garenean. Garapenarena, gainera, sorgin-gurpila da. Garatutako herrialdeen teknologiaren mendeko gara zeren, nola edukiko dugu teknologia hori gure lurraldeak badira Ipar globalaren konfort bizitza sostengatzen duenak?

Zein da gure komunitateen parte-hartzea? Bizitza uztea defentsan eta borrokan baliabideak eraman ez ditzaten eta bizi nahi dugulako proposatu dugun erara. Zeren, Abya Yalak egin ditu proposamenak bizitza eta garapen ereduaren gainean baina ez dira entzuten. Ez dira entzuten sistema ekonomiko hegemoniko kapitalista neoliberala errotua dagoelako erauzketan, patriarkatuan, arrazismo sistemikoan, kolonialismoan eta inperialismoan. Beste era batera

"Batzueta sentitzen dut
galtzen zaretela testu
handiak idatzi nahian, eta
idatz ezazue elkartasun
mezu bat hitz xume
baina indartsuekin"

**Zenayda Serrano
(El Salvador)**

esanda, pertsona feminizatuen, arrazializatuen eta planetaren explotazioaz elikatzen da eta hori da gure lurraldeen errealitatea. Lurraldeak txikitzen eta bizitzak erauzten ari dira eta bertako baliabideak hona ekartzen garapenaren izenean. Enpresek baliabideak erauzteko duten irrika biziak, ehun sozialaren haustura oso gai konplexu bihurtzen du gure komunitateetan.

Trantsizio energetikoa hitz egin beharreko gaia da, baina gardentasunez. Gardentasuna eskatzera derrigorituak gaudete eta trantsizio energetiko hori aintzat hartua izango da, baldin eta egiaz behar duguna bada.

DALILA ARGUETA (HONDURAS): Beldur handia ematen du gertatzen ari denak, ikusten ari garenak, hemen mugitzen ari denak, zeren, datorren trantsizio-egitura honek guztiak esan nahi du han are gehiago estutzea. Geure buruari galdetzen diogu nola egin aurrera denontzat justua ez den eta denekin kontsultatu ez den trantsizio-mehatxu honekin. Trantsizio bat inposatzen eta sostengarazten zaigu. Ez zaigu sostengatu nahi dugun ere galdetzen, Europa sostengatzeko gai ez den bizi-eredua mantentzera kondenatzen gaituzte zuzenean. Kolonizaziotik izan da horrela. Ez dira mineralak bakarrik arpilatzen, baizik eta gorputzak, komunitateak, nahi dugun bizitza eredu eta bizitza dagokigula uste dugun mundua, non oinarri diren lurrarekiko errespetua eta egiten gaituenarekiko lotura.

Trantsizio honek hitz egiten du aldatetaz egiteaz hemen, zuen iturria aldatzeaz baina ez jatorria. Gu beti egongo gara hiltegira kondenatuak eta hori ez da justua. Geronek jarri behar dizkiogu bizkarra, gorputza, bizitzak eta lurraldea eta ez da justua, kontsultatu gabe ez da justua, horrela ez dugu inorekin trantsizionatu nahi. Ez da jasagarria ezta Europarentzat berarentzat ere. Ez da kontzientziadun trantsizio bat, herrien, komunitateen eta herrialdeen odolez

“Trantsizioaz hitz egiten denean izan dadila Europak mantendu dezakeena, egin dadila bizi nahi duen bizitza ereduaren kargu, baina ez gure herri, ez gure mendi, ez gutaz jabetuta”

Dalila Argueta
(Honduras)

zikindutako trantsizio bat da eta ustelkeria eta kriminalizazioa elikatzen ditu, hilerrietan hilobiak zabaltzen jarraitzeaz gain. Lantzeko lurrik ez izatea eta ur kutsatua edatea heriotza motel bat dira. Lotura kriminal ikaragarriak daude.

Orduan, hipokrita da zuen gobernue-tako diskurtso politikoetan gure herrie-kin kooperatzeaz hitz egitea, benetan lankidetzan ari badira egurra ematen diguten eragile eta estatuekin.

Zer gertatzen da hemen? Bada, ez dela ikusten. Oso erraza da gu sakrifizioa kondenatzea ez dugulako axola, ez diegu geure herrialdeei ere axola, Europari bost zenbat komunitateren gainetik pasa behar duen bere trantsizio bedeinkatua egiteko. Trantsizioaz hitz egiten denean izan dadila Europak mantendu dezakeena, manten dezala Europak, egin dadila bizi nahi duen bizitza ereduaren kargu, baina ez gure

“Ikertu itzazue zuen enpresak eta bueltan ekarrarazi. Liberatu dezatela gure lurra. Ingurumen inpaktua eta krisia eragiteaz gain, inpaktu psikologiko larria eragin dute”

Dalila Argueta
(Honduras)

herri, ez gure mendi, ez gutaz jabetuta. Ez gara hiltzeko arkumeak, ez dugu izan nahi, ez dugu izaten jarraitu nahi, ez dugu erbestean egon nahi.

Aberastasuna ez da urrea, aberastasuna beti izan dira lurra, haziak, duintasuna eta jakituria eta hori zeure egiten duzu lekuan errotuta zaudenean.

Jasandako errepresioa nolakoa da?

A. BERMUDEZ (KOLONBIA): Errepresioak hamaika mekanismo eta hamaika ondorio ditu. Kolonbian, esaterako, megaproiektuei aurre egiten dieten komunitateen aurka egiteko gobernua darabilen estrategia da estigmatizazioa eta garapenaren kontra daudela zabaltzea. Horrek arrisku larrian jartzen ditu kideak. Diote praktika horiek errenta utziko dutela herrialdean eta diru horrekin finantzatuko direla gastu gehienak. Horrek eragiten du dibertsifikazio ekonomikoa galtzea eta komunitate asko abandonatuak izatea estatuaren partetik. Era berean, zuzeneko eta zeharkako indarkeria bortitza ekarri du.

Kontuak horrela, gune horietatik gertu dauden komunitate gehienek ausardia hutsez bizirauten dute, sinesten dutelako. Komunitateak bizirauten ari dira autozaintza estrategien bidez eta segurtasun estrategia propioekin. Eredu anitzez hitz egiten duten proiektu politiko proposamenak dituzte, ari dira agroelikadurarako lurraldeak sortzeaz, autogobernatzen diren lurralde interetnikoek; aipagai dituzte, baita ere, ekonomia eta eredu ekonomikoa, eta mahaigaineratzen ari dira trantsizio hau faltsua dela. Eredu kapitalistaren krisi berri bat da, ekonomia berdez moztortua eta negozio-enpresa guztien zuritze berdea. Neoestraktibismoa ari da gertatzen ekonomiak eta eredu ekonomikoak bera izaten jarraitzen baitu, leku beretik edaten jarraitzen baitu.

Gure komunitateek eta mugimendu sozial eta politikoez galdetzen dutena da: zenbateko burujabetza erreala dugu trantsizioaren gaian? Eta erantzuna da: batere ez. Eragile, teknologia eta zapaltzaileen mende jarraitzea da.

D. ARGUETA (HONDURAS): Bertako komunitateek erresistentzen dute erresistentzian sortuak direlako, ez daudelako bakarrik, artikulatuta baizik. Gainera, erresistentzien %80an emakumeak daude lehen lerroan, ez da harritzekoa trantsizio patriarkal honen

estrategiak medio. Eta erresistentzia egiten da baita ere eztabaida politiko eta artikulazio politikoekin. Mundu mailako ekonomia politika eztabaidatzeko dago, sistema honen oinarrian nekropolitika baitago.

Zer eskatzen diozue edo zer espero duzue euskal mugimendu ekologistarengandik?

D. ARGUETA (HONDURAS): Zuen enpresak ikertzea eta identifikatzea. Ez dezala administrazioak egin, esango baitu euskal enpresak ez daudela han. Bai, han daude eta gu izorratzen ari dira. Ikertu itzazue eta bueltan ekarrarazi. Liberatu dezatela gure lurra, irten daitzelara gure atarrietatik eta eman ditzatela kontuak hemen, eta baita han ere. Ingurumen inpaktua eta krisi bat eragiteaz gain, inpaktu psikologiko larria eragin dute zonaldean.

Bizi dugunarekiko erantzukizun handia dago, beraz, epaiketa bat-edo egin behar zaie, pikutara bidali edo dena delakoa, baina utzi ditzatela lurraldeak libre. Eta identifikatutako enpresen parean jarri behar bada, zarata atera. Zezena adarretatik heldu, ez buztanetik. Egin mapatze bat, zein enpresa eta non dauden. Nor eta non ari den izorratzen eta nor dabilzan borrokan, eta elkartu gaitezen.

Bestalde, galde iezaiozue zeuen bu-ruei: zer egiteko prest zaudete? Noraino helduko zarete? Noraino eutsiko diozue? Nola egin nahi duzue defentsa? Guk argi daukagu. Eta ez ditugu ez gure ibaiak ez gure mendiak galduko. Gutxienez, ez diogu defendatzeari utziko. Hau da lurrarekin jaiotzetik egiten dugun paktua.

Z. SERRANO (EL SALVADOR): Berriz ere hitz egin behar da emantzipazioaz, herri-botereaz eta ortzimuga estrategikoez, politikoez eta ideologikoez.

Egin ezazue elkartasun komunikatu bat Abya Yalarekin. Batzuetan sentitzen dut galtzen zaretela testu handiak idatzi nahian, eta idatz ezazue elkartasun mezu bat hitz xume baina indartsuekin, esan iezaiezue gure herriei eurekin zaudetela erresistentzian.

Irakurle, hasteko, ez da ariketa makala proposatu digutena. “Guk, ingurumenaren aldeko mugimendu bezala, bat egiten dugu Abya Yalako kideekin eta...” Komunikatua idazteko elkartuko gara? ●

“ ”

“Hizkuntza gutxituetako komunitateak tematiak izan behar dira, existitzen direla erakutsi behar dute”

Hogei urte bete dira ICANN Izenak eta Zenbakiak Banatzeko Interneteko Korporazioak .cat domeinua onartu zuenetik. Gertakari horren erantzule nagusienetakoa Amadeu Abril (Bartzelona, 1961) abokatua izan zen. Adimen artifiziala eta teknologia berriak nazioartean hartzen ari diren garrantziaren aurrean, Interneten gobernantzari buruzko Euskarabildua jardunaldia egin dute Donostian azaroan, lametzak, Ametzagaiñak eta Argiak antolatuta. Han izan da Abril, ICANNen funtzionamenduaz mintzatzeko. ARGIAk bera elkarrizketatzeko aukera izan du.

 ENEKO IMAZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Geroz eta nazioarteko testuinguru ezegonkorrago batean, zer garrantzi hartzen dute Interneten gobernantzak eta sare globalaren gaineko kontrolak?

Interneten gobernantza garrantzitsua da Internet bera garrantzitsua delako. Duela 30 urte, Internet internautek soilik erabiltzen zuten; egun, ordea, gardena da, eta gizarte osoan eragina du hezkuntzan, politikan nahiz maila sozialean. Hortaz, Internetek nola funtzionatzen duen eta azken urteetan nola ari den garatzen aztertzea bereziki garrantzitsua da.

Internetek oso ezaugarri garrantzitsua du: bereziki zaila dela han agintzea. Hau da, Interneten egiten dena erabiltzaileen eta enpresen esku dago, baina bertan dagoen teknologia zerbitzu berriak sortzen dituzten ingeniarien araberakoa da. Beraz, aldakorra da: esaterako, 1990eko hamarkadan guk uste genuen Internet bidez ezin zela irratirik zuzenean egin. Internetek hazteko gaitasun handia duela agerian utzi du, eta horregatik garrantzitsua da datozen urteetan nola garatuko den ikustea.

Interneten badago zati bat autorregulatzen dena –batez ere, zati teknikoak– eta badaude edukiaren beste hainbat zati erregulatzeko zailak direnak. Hala ere, Internet ez da hazi multilateralismoan: hau da, estatu guztiak auzi baten inguruan ados jarri eta erantzun bateratua emateko. Kontrara, aldebakartasuna hazi da. Esaterako, Donald Trump [AEBetako presidentea] jaikitzen da eta erabakitzen du Tik Tok debekatzea, ez zaiolako gustatzen. Arazo handi bat dugu gobernuek indibidualki hartutako erabakiekin, oraindik presentzia handia baitute. Hor-





taz, Internet sortu eta 30 urtera ez ditugu konponbide bateratuak sare globalaren gobernantzari dagokionez.

Horren aurrean, zein helbururekin sortu zen ICANN fundazioa 1998an? Zein funtzio bete ditu geroztik?

ICANNek hainbat helburu zituen bere sorreran. Alde batetik, bazuen helburu argi bat: unibertsalak eta koordinatuak izan behar diren funtzio batzuez arduratzea. Hau da, Facebook edo Gmail bidez mezu bat bidali nahi badut, Interneteko helbideen kontua da -IP helbideena eta izenena, zehazki-. Hori koordinatuta egon behar da, ezin baita izen edo zenbaki bera eduki bi lekutan, kasu horretan sistemak funtzionatzeari utziko liokeelako.

Bigarren helburua garai horretan zegoenarekiko ezberdina zen eredu bat erakitzea zen: sarearen autogobernantzaren eredu bat, hain zuzen, zeinetan industriak soilik ez duen agintzen; baita Interneten parte hartzen duten gizarte zibilak eta go-

bernuek ere. Honen bidez, erabakiak denen artean hartzen dira: ordea, eredu hau zailtzen joan da urteak igaro ahala. Izan ere, erabakietan parte hartu nahi duten ahotsak ozendu egin dira. Eredu horrek funtzionatzen du baina egiturazko arazo bat du: ez dagoenez erabakiak koordinatzeko beharrik, ez dago edukien, egileen eskubideen... inguruan aginduko duen inor egoteko adostasunik.

Beraz, ICANNek esperimentu funtzioa du, eta ez du zenbaitek esleitzen dioten boterea: esaterako, duela gutxi Trumpen administrazioak gustuko ez zituen adimen artifizialaren inguruko zenbait arau salatu zituen, eta horren errua ICANNi leporatu zion, nahiz eta ez duen gaitasunik auzi horietan eskua sartzeko. ICANN existitzen denez, zenbaitetan benetan ez dituen funtzioak eta erantzukizunak esleitzen dizkie.

ICANNek oraindik ez duena eta agian inoiz izango ez duena zera da: gai horiei buruzko erabakiak nazioarteko erakun-

deetan hartzeko tresna globalak. Hor-taz, amankomuneko gobernu bat edukitzeko, "gu" bat egon behar da; ordea, Trumpen administrazioaren gisakoekin Interneteko multilateralismoa ez dago bere gorenean.

Interneteko gobernantzaren zein eredurekin funtzionatzen du ICANNek?

ICANNek *multistakeholder* izeneko ereduarekin funtzionatzen du, gobernuez gain, industriako eragileek nahiz erabiltzaileek ere parte hartzen baitute. Hau da, hiru adarrek osatzen dute: pribatuak, publikoak eta zibilak. Modu grafiko batean azalduz gero, ICANNek demokrazia organikoa gogoratzen du: Mendebaldeko egungo demokrazietan pertsona bat, boto bat" leloarekin funtzionatzen dute, baina elizek, erakunde publikoek, enpresek eta lobby taldeek ez dute bozkatzeko. Eragiten dute, baina kanpotik hartzen dute parte, eragiteko





ahalmenetik edo *lobbying*-etik, eta egungo sistema politikoan boterea bozkatzeko duten herritarrengana dago.

ICANNen denek bozkatzeko dute, horregatik eskatzen du adostasun bat. Ordea, norbaitek AEBetako Gobernu gisa edo Google gisa bozkatzeko duela esatea oso arraroa da, ez duelako gobernu bat edo enpresa erraldoi bat ordezkatzeko. Horregatik, bakoitzak norberaren interesen arabera bozkatzeko du. Historikoki, demokrazia organikoaren ereduak ez du ondo funtzionatu: ez da makinari eraginkorra, erabakietan parte hartzen duten eragile guztiak adostasun batera iritsi behar baitira, eta horrek auzi askotan erabakiak hartzea nabarmen zailtzen du. Interes ugari elkarrekin talka egiten dutenez, eredu korapilatsua da, baina adostasunetara iristen denean erabakiak finkoagoak dira.

Zure kasuan, nola hasi zinen harremanetan sare globalaren eta domeinuen munduarekin?

Adin bat dudanez, niri tokatu zitzaidan ohartzea Internet existitzen zela. Garai horietan teknikari baten laguntza behar izaten nuen datu baseetan informazioa bilatzeko. 1993an hasi ziren agertzen

lehen nabigatzaileak, eta bi urte geroago dena lehertu zen: Interneten jada ohiko erabiltzaileak ez ziren soilik telekomunikazioetako ingeniariak.

Mirari horrekiko –datu base batera konektatu eta sortu duzun webgunea mundu osoak ikustea– interesa piztu zitzaidan, eta hainbat taldetan izena eman nuen. 1995eko uztailean arte domeinu guztiak doakoak eta irekiak ziren, baina une horretatik aurrera bi urtean behin 100€ kobratzen hasi ziren. Horrek sekulako iskanbila eragin zuen, eta horren inguruan gehiago jakiteko mundu horretara gerturatzen hasi nintzen.

Une horretan egin nahi nuena zera zen: katalanez “auzo” bat sortzea, hizkuntza horretan komunikatzeko garenontzat. Ordura arte “auzo” guztiak ingelesez zeuden eta Internetek, azken finean, komunikatzeko balio du, eta nire hizkuntza bera hitz egiten duen jendearekin harremandu nahi nuen.

Zergatik egin zenuen .cat domeinua sustatzeko apustua?

XIX. mendean euren gramatikaren modernizazioa edo armonizazioa lortu ez zuten hizkuntzak, hau da, hizkuntza normalizatzea lortu ez zutenak, gehie-

nak desagertu egin dira edo desagertzeaz daude. XX. mendearen hasieran eskoletara sarbidea lortu ez zuten hizkuntzak desagertuta edo desagertzeaz daude. XX. mendearen bigarren erdian irratira –eta ondoren telebistara– sarbidea lortu ez zuten hizkuntzak egoera oso txarrean daude edo desagertuta. Ondorioz, une bakoitzean garrantzia duena edo aldaketa suposatzen duena bilatu behar da: duela 25 urte Internet zen hori, eta horregatik XXI. mendean hasieran lortu behar zen katalanez dena egin ahal izatea.

Horrez gain, kanpoko ikusgarritasuna garrantzitsua da: zure burua erakutsi behar duzu uneoro, eta hori oso bultzada handia da hiztunentzat. Izan ere, hizkuntza baten biziraupenerako ezinbestekoa da hiztunek ikustea hizkuntza horrek prestigio soziala duela. Ez bada horrela, desagertzera kondenatuta dago. Estaturik gabeko hizkuntzen kasuan, sinbolo edo ikur bat gehiago edukitzeak autoestimua ematen diete hiztunei, eta hori garrantzitsua da prestigio sozialari dagokionez.

Sare globalari dagokionez, zein da hizkuntza gutxituetako komunitateek egungo mundu globalizatuan bete beharreko papera?

Sinplea da: estatuak ikusten dira, baina ez estatu horien barnean dagoena. Espainiako Estatuaren kasuan, Interneten askotan gaztelania eta dialektoa existitzen direla agertzen da, dialektoa hizkuntza bakarra izango balitz bezala. Hortaz, gure lehen zeregina tematiak izatea eta existitzen garela agerian uztea da. Tematiak izan behar gara, hein batean, Interneten hizkuntzen inguruan erabakiak hartzen ari direnean bilertan, isilik ez dauden euskaldunak eta katalanez gogoratzeko. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzeko
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAN



ARGIAk egunpasa egin zuen azaroan Aiaraldea Ekintzen Faktorian. Argazkian bateko eta besteko langileak eraikinaren sarreran.

Laudio ARGIAren sede egun batez

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA


Laneko bazkarien urte sasoian sartuta gaude. Fenomeno kuriosoa. Bakarrizketa bat osatzeko adina mami eman dezakeena. Gehitxo edan eta esandakoez hurrengo egunean damutuko den lankidetik hasi eta bateren batek ordaindu ez duela eta, beste lankide guztiek gehiago ordaintzen dutenera arteko tartean gertatzen diren guztiak. Ez dira egun errazak izaten zenbait enpresa eta lantokitako bazkariak. ARGIAkoak berriz, egun osoa pasatzera joaten dira (bazkaria barne)! Oraingoan Laudiora (Araba). Ondo moldatuko dira elkarrekin gero...

Aiaraldea Ekintzen Faktoria ezagutzeko aprobetxatu dute aukera. Bertan egin dituzte formazio saioak, bisita gidatua eskaini diete proiektu osoa aurkezteko eta otordua ere toki berean egin dute, bertako produktuekin gozatu. Donna Apellaniz izan dute egunaren lehen zatiko saioan gidari. *Emozioen*

kudeaketa lantokian izan da aurreneko formazioa. Egun batzuk lehenago, Apellaniz ARGIAren barne-funtzionamenduan kokatu dute pixka bat, azaldu diote ez direla zerotik hasten, dagoeneko jartzen dutela arreta lantaldearen emozioetan eta egunerokoan egiten dituztela ariketa txikiak emozio horiek presentetzeko. Laudioako lehen saio horretan teoriak jantzi dira aurrena, praktikara pasatzeko gero.

Bisita gidatuarekin moztu dute formakuntzaren dinamika eta Adimen Artifizialari eman diote paso bigarren saioan. AAren erabileraren inguruko gogoeta-ekin hasi dira. Eta hasi direla diot, hori izan baita ondorio nagusietako bat: ARGIAk jarraitu behar duela AAz hitz egiten eta etengabeko eztabaida bat izan beharko duela datozen urteetan. "Ez da Adimen Artifiziala bai edo ez, alde edo kontra sinple bat; zer eta nola da", azaldu du Mikel Garcia taldekideak. "Eta

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Euskal hedabide independente bat babesteko, sozialki euskal gizartearekin konprometitzeko eta hauei denon artean bultzadaxoa emateko. Mila esker zuen lan onagatik!

Usurbildik Karmelek

“”

Gure hizkuntza bultzatzeko. Urretxutik Josebak


“”

Euskara gure territorio libre bakarra izaten jarraitzeko.

Astrabuduatik Agustinek

baietz baldin bada, ez da baldintzarik gabeko baiezkia, noski, ez baita berdin multinazional baten baldintzetan jokatzen duen Adimen Artifiziala erabili edo gure enpresa laguna den Adur bezalako batek sortua", jarraitu du. "Jasangarritasuna, datuen pribatutasuna edo euskara errespetatuko dituen Adimen Artifiziala da erabili nahiko genukeena, eta horretaz eztabaidatzen hasi gara Laudion".

Lantokitik atera, lankide guztiak beste espazio batean elkartu, ezagutu, elkarrekin egon eta gogoetatzeko aprobetxatu... Uste dut baliatu dezakezula hurrengo laneko bazkaria, irakurle, zure enpresan antzeko irteera bat egitea proposatzeko. Zer atera liteke gaizki? ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Espezierik inbaditzaileena

Sobietar Batasuna, 1920ko hamarkada. Nikolai Vereshchagin errusiar zoologoa Kaspiar itsasoko Azerbaijaneko kostaleko fauna aztertzen hasi zen, eta gero Armenia eta Georgiako mendietan jarraitu zuen. Kaukaso inguruan desagertutako animalia espezieen erregistro ahalik eta zehatzena egitea zuen helburu. Labar pinturetan irudikatutako uroak, gazelak... ikertu zituen eta, besteak beste, mamuten eta tigreen fosilak eta hezur zatiak aurkitu zituen.

Kaukasoko ugaztunen 11.000 urteko bilakaera bildu zuen, klima aldaketa naturalek eragindakoa nahiz, berrikiago "giza jardura kaotikoak" ekarritakoa. Eta 1954an *Kaukasoko ugaztunak* liburuan jaso zuen aurreko hamarkadetako lana.

Baina Vereschagin ez zen mugatu eremu hartako historia ekologikoa biltzera; inguru hura esperimentalki aldatzeko ahalegina egiten ari zen: dokumentatzen ari zen ekosistemak berregiten saiatu zen, desagertutako espezieak eskala handian inportatutako kanpoko beste espezie batzuez ordezkatuta. Bestela esanda, espezie inbaditzaileak sartu zituen. Hala, Andeatatik txintxillak ekarri zituen, Txinatik txakur mapatxeak, Japoniatik sika oreinak, Ipar Amerikatik mofeta marra-dunak... Oro har, espezie horiei kostatzen zuten inguru berrira egokitzea, ez, ordea, Hego Amerikako hezeguneetatik ekarritako koipuari (irudian).

Vereschaginek 213 koipu sartu zituen 1930eko hamarkadan. Teorian, karraskari handiak kontrolatzeak ez zien arazorik



ALFRED BREHM

ekarriko, otzanak baitziren, etxekotzen errazak. Baina koipuek ugaltzeko ahalmen handia dute: emeak urtean bizpahirutan 4-5 kume erditzeko gai dira. Eta beren jatorrizko ingurune harraparik ezean, Kaukasora iritsi eta bost urtetan, koipuen populazioa bikoiztu egin zen. Handik aurrerako erregistrorik ez dago.

Gaur egun, koipua munduko ehun espezie inbaditzaile kaltegarrien zerrendan dago, eta kontinente guztiak hartu ditu, Ozeania eta Antartika ezik. Baina horren erantzukizuna ezin diogu soilik Vereschagini egotzi, askoz lehenago konkistatzaile espainiarrak izan baitziren koipua Europara eramaten lehenak, karraskarien haragia, baina, batez ere larrua, ustiatzeko asmoz.

Eta horixe zen Vereschaginek buruan zeukana, koipuak ekonomikoki ustia-

tzea. Pentsa liteke, zoologoak asmo txarrik gabe egin zuela zoritxarreko esperimentua. Baina kezka ekologikoaren gainetik antropozentrismoa gailendu zitzaion. Izan ere, bere helburua zen "ingurua giza populazioa sustengatzeko ahalik eta egokiena" izatea. Horren seinale da, kanpoko espezieak ekartzeaz gain, bertako beste batzuk suntsitzeko asmoa ere baitzeukala zoologoak: ganadua erasotzen zuten otsoak edo txakalak, adibidez. Zorionez, planaren zati hau ez zuen gauzatu.

Orain arte, inork ez ditu koipuek Kaukasoa eragindako kalteak ikertu, ezta populazioa zenbatu ere. Baina Vereschaginek egindakoak erakusten du, azkenean, animalia espezierik inbaditzaile eta kaltegarriena gizakia dela. ●

Sumendi batek ekarri zuen izurria

1345. urte inguruan sumendi batek eztanda egin eta tenperatura jaitsiera nabarmena, uza txarrak eta gosea eragin zituen Europan hurrengo urteetan. Krisia arintzeko, garia Itsaso Beltzaren inguruko eremuetatik inportatzen hasi ziren eta, hala, *Yersinia pestis* bakterioari Europa aihulduan sartzeko ateak

ireki zitzaizkion. Kontinenteko populazioaren erdia hil zuen izurriak 1348 eta 1349 urteetan. Izurri Beltzaren jatorriari buruzko hipotesi berria *Communications Earth & Environment* aldizkarian argitaratu dute, eta sumendiaren ondorioak Pirinioetan aurkitutako zuhaitz batzuen eraztunetan irakurri dituzte. ●



JAN BRUEGHEL ZAHARRA

KLASEAK ETA KLASEAK



JOSEBE BLANCO ALVAREZ
BALERDIPEKO ERLEAK

Elurraren aurreko haizeteek, beti bezala, utzi zizkiguten lanak bazterretan. Berriro motozerrak martxan bideak libratzeko, kalera jaitsiko bagina. Bai, hori da, etxeko motozerra –noren bestela?–.

Etxera datorren bide publikoaren bazterrean, beste behin, alertze batek erabaki du hego haizearen kontrako borrokan amore ematea, eta burua beste alertze batean gainean pausatu du. Argindar sarea ere hartu du pausaleku, ezin saihestu. Azaroak 14 ditu, ostirala. Hurrengo astean, elurra etorri zen hari ere estalki zuria janztera, eta nekearen nekeaz, eta pisuaren pisuaz, gure protagonista gero eta okerrago dago, gero eta akituago, dena delakoaren gainean etzateko gogoz. Bera horretan dela, gu Damoklesen ezpata nola, zain gaude noiz geratuko garen argindarrik gabe.

Azaroaren 16an deitu genuen lehenbizikoz Iberdrolara. Eskerrik asko abisuagatik, mantentze zerbitzuari pasa diogu abisua. Handik ordu erdira: presazkoa da ala bihar joanda nahikoa da? Atzean, ume txiki baten ahotsa: "Aitatxo, etorri!"; "Lasai, bihar etorrita ere, ongi".

Azpiktrataturako enpresako langilearen –edo nagusiaren?– biharamunekoa deiak zur eta lur utzi gintuen, alertzea baino abailduago: etxeko iturria hondatzen denean iturginari deitzen diozun bezala, baso-lanetan aritzen den enpresa bati deitu beharko diozu zuhaitza kable gainetik kentzeko. Antza, hamabost egun lehenago Iberdrolak eta azpikontratek Madrilen izandako bileraren akordioa horixe izan zen: etxeetara doan sarea zuhaitzengatik kaltetuz gero, ez da mantentze lanik izango; etorriko dira argindar zerbitzua eteten den momentutik aurrera, sarea jostera.

Egunen joanean, Iberdrolaren matxuren zenbakira deitzeak sortzen duen frustrazioaren jakitun balitz bezala, alertzeak gero

eta bihurriago eta zartatuago zuen lurrari eusten zion enborraren aldea.

Udaletxera jo dugu, laguntza eske. Ezer berriarik ez, Bermudetako Hirukian desagertutako etxea gara. Azkena, abenduak 5 zituela, bertako idazkariak proposatu zigun udaletxean eskaera formala erregistratzea. Gure existentziaren frogagiria –baita alertze abailduarena ere–. Asteotako galdera nonahikoari bidea eman nion hantxe: noren ardura ote litzateke alertzea eta kablea inoren gainean erortzekotan? Erantzuna: zuhaitzaren jabearena. Harrezkero, buelta eta bira ari zait egoeraren Bermudetako surrealismo gordina, eta zorabio betean, 112ra deitzea ere pasa zait burutik.

Izan ere, nori, bestela, deituko lioke edozein kaletarrek kale kaskoan horrelako egoerarik ikusiko balu? Nortzuk joango lirakeen ez luke axola, kontua da handik eta hemendik zerbitzuak martxan jarriko lirakeela ahalik eta lehenen egoera konpontzeko, inor arriskuan egon ez dadin.

Hemen ez. Hemen bide publikoa pronto pribatizatzen da. Eta mendia. Eta bizitzak. Komeni bada. Eta komeni da.

Alfer-alferrik izango ditu Iberdrolak identifikatuta giza eskubideetan izan ditzakeen eraginak. Zertarako zehaztu horniduraren oinarritzko eta kalitatezko zerbitzuak eskuratzeko kalitatea? Zertarako lotu etika eta integritatea berdintasuna eta diskriminazioarekin? Hori dena eta gehiago jasotzen du Iberdrolak bere webgunean. Zertarako, gerora lurrera-



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

tzen eta gauzatzen ez badira, arrantzatu nahi dituzten akzionisten loa zaintze aldera ez bada?

Bitxia da oso Iberdrolak zenbat diru inbertitzen duen goi tentsioko lineetan, eta ze erreparatu gutxi duen erdi tentsioko lineetatik zuhaitzak kentzeko, bata bestearen atzetik. Tentsio baxukoak, baina, erortzen utzi. Zer da baina mendian bizi den jende hori, etekin ekonomikorik ez badago?

Beti izan dira klaseak eta klaseak. Eta gero desklasatuak, Bermudetako Hirukian bizi diren horiek. Horiexek gara gu, mendian eta landa-eremuan bizi garenok.

Konturatzen zarenean oinarritzko eskubideak kapitalaren egituretatik kanpo atera ezean dena ilunpetan geratzen dela, flipatu egingo duzu.

Flipatuko, jabetzen zarenean giza eskubideak diskurtsoetan txertatu izana ez dela zure garaipena, baizik euren plusbalioa. ●

A ZE FAUNA!

URETAN
DANTZAN!

IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

EGOITZ ALKORTA



UHANDRE PALMATUA
Lissotriton helveticus

TALDEA: Ornoduna / Anfibia.

NEURRIA: 8,5 cm baino txikiagoa, isatsa barne.

NON BIZI DA? Hezeguneetan eta basoetan.

ZER JATEN DU? Ornogabe txikiak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

Txikia da putzua; putzu-zulo deitzeko modukoa. Baina bere txikitasunean badu garrantzia, eta ez nolanhikoa. Hezegune txikiak edo mikrohezeguneak espezie askoren bizileku baitira, ugaltzeko toki, babesleku edo elikatzeko edota egarria asetzeko gune.

Horregatik, mendiko pistetatik barrena bazoaz eta putzu txikirik aurkitzen baduzu edota ur-askaren bat topatzen baduzu, ez galdu aukera: gelditu eta behatu. Zorte pixka batekin, uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) aurkitzeko parada izango duzu, eta ondo begiratuta, zorte gehiagorekin, ur azpiko diskotekan barneratuko zara: uretan dantzan! Uretan dantzan!

Uhandre palmatuak ugaltzera putzuetara joaten baitira, eta nolabait erakarrri beharreko lan horietan... arrak bere dohain guztiak jartzen ditu martxan. Ugal garaia izanik, gandor txiki bat garatuko du bizkarraldean, eta hari fin antzeko bat isatsaren puntan. Atzeko hanketako hatzak, bestalde, mintz mehe batez lotuko dira, ahate baten hanken gisara, oin palmatuak sortuz. Hortik izena: uhandre palmatua. Emeak ez ditu ez gandorra, ez haria ezta hanka palmatuak ere garatuko. Eta dantatzeko ere... mugitu dadila arra, zer demonio!

Ur azpiko jolasa izaten da uhandre palmatuarena. Putzu barneko lurzoruan, arra emearengana gerturatzen da. Izan ere, uhandre palmatuetan arra izan ohi

da dantzarako intentzioa eta mugimendua jartzen dituen. Emea begira ariko da. Arrak, emearen aldamean jarri eta, isatsa bihurtuko du. Eta bat batean, astintzen ere hasiko da, abiada bizian, ur azpiko buztan dantza berezian. Eta ez du etsiko, gelditu eta hasi, gelditu eta jarrai. Uretan dantzan!

Uhandre palmatuak otsailean egiten du uretarako joera. Aurretik lehorreko fasean izaten da, azal lakarragoarekin, ezkutatuta. Ondoren, azala bera ere findu egingo zaio, eta putzura sartuko da, ugal garaiko gorputz aldaketekin. Otsaila dela garaia diogu, baina azken urteetan udazkenean ere ikusten hasiak gara uhandre palmatuak uretan. Datuak bildu beharrekoak dira, klima aldaketa joerak aldatzen ari ote den ikusteko ez ezik, baita frogatzeko ere.

Uhandre palmatua espezie nahiko arrunta da Euskal Herrian. Banaketa zabal da eta ez da oso zorrotza bizileku eskaeraren aldetik. Mota guztietako putzuetan aurkituko dugu eta askotan, dentsitate nahiko altuetan.

Kuriosoa da, ordea, Hernani (Gipuzkoa) aldean egindako izen-bilketatik ateratako ondorioa. Izan ere, uhandre palmatua ezagutzea auzoka doala dirudi: hernaniar askorentzat uhandre palmatua "arrobiyua" da. Batez ere, benetako arrabioa (*Sa-*

lamandra salamandra) ez dagoen tokiko biztanleentzat. Alegia, herri berean izen bera bi animalientzat erabiltzen da, eta horrek nahasdurak ere ekarri ditu. Hernaniko Jauregi auzoan "emakumeak larri ibiltzen ziren, ikaratuta, arropa garbitzera joanda", esan ziguten. Ur-askara joaten ziren gobara egitera emakumeak eta, bertan "arrobiyua" topatu: uhandre palmatua, alegia! Haiek, ordea, "arrobiyuak" pozoia zuela entzungo zuten non edo non, eta arrabio arruntaren fama txarra uhandreari pasa!

Kontuak kontu, anfibio txiki honek zaila izango du oharkabean igarotzen, zientzialariak ere begira baititu. Bere osasun maila aztertuta, eukaliptoek anfibioengan duten eragina aztertzen ari direla, esaterako, Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologoak. Eta kaltea eragiten diola ondorioztatu dute. Eukaliptoek askatzen dituzten substantziek hartzen baitute zuhaiztipeko putzua, eta bertan uhandrea egonez gero, ahuldu egiten omen du, bere ugal-ezaugarrietan ere eraginez. Uretan dantzan jarraitu beharko du uhandreak baina, arren trajea ez omen da hain ederra jada landaketa horien eraginpean. ●

BETOR HOTZA, ARREN!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC BY-SA

Azak izotzetan.

Epel eta berotik joan da. Bada Durangon abendu hasieraero azoka berezi bat, "euskal kulturaren azoka" esaten zaiona. Bertan Bizi Baratzearen inguruko lurzaleon egunetako kongresua izaten da eta aurtengoan giro epela eta giro beroa izan dira. Giro epela eguraldiaren aiekatik: ateri eta egun gehienak eguzkitsuak. Jendea gogotsu hurbildu da eta eguraldiaren joera izan da maiz hizketari ekiteko bide. Giroa beroa izan da eman-hartuaren aiekatik: bosteko, besarkada, laztan, maite-maite, orakada, musu, hitz eta ele leun, adore eta hats emate. Berotasun hori ez da hizpide soila, lurraren kulturaren aldeko ekinari eutsi eta are eta gehiago eragin eta ufatzeko erregai bikaina da, pago-pitzakia (*Fagus sylvatica*) adinakoa behintzat bai.

Hotza behar dugu, baina. "Zer gertatzen ari da eguraldiarekin?", izan da galdera nagusietakoa lurzaleon azokako txokoa. Zer atarramendu espero behar dugu datorren udaberrian baldin eta giro honek epelkeriari badarraio? Hotza behar dugu.

Garai batekoen aldean tenperatura epe-lagoak ditugu egun neguan; -5°C-ko tenperatura muturrekoa dela uste da. Aldaketa horrek gure paisaiaren etengabeko eraldaketa bizkortu du: garrazkiak, olibondoak (*Olea europaea*), ahuakateondoa (*Persea americana*) eta abar nonahi topatuko dituzu isurialde atlantikoa. Hotza funtsezkoa da gure ingurune landarediarentzat, baita elikagaiak sortzeko nekazaritzakoentzat ere.

Lurrean eragin handia du hotzak: egitura hobetzen du, adibidez, buztin lur itoak laxatu. Bestela soro eta baratzeetan erruz ugaritu eta haziko liratekeen sapelarra (*Stellaria media*) eta antzerako belarrak atzeratzen ditu.

Neguan freskura eta hezetasuna gustuko dituzten makina bat landarek zikloa osatzeko, lorea ireki eta fruitua emateko, nahitaezkoa dute hotz gradu jakina. Hotz horrek, atzea nola dantzatu erakusten duen aurre horrek, ikusarazten die ondoren udaberriaren epelkeria datorrela, eta loraldiak suspertzen ditu.

Gaitzak eta izurriteak atzeratzeko ere ederra da hotza. Azken urteetan gurera

ekarri ditugun porruaren sitsa (*Allium porrum* - *Phytomyza gymnostoma*), intxaurrondoaren eulia (*Juglans regia* - *Rhagoletis completa*), geranio arruntaren harra edo tximeleta (*Pelargonium spp.* - *Cacyreus marshalli*) eta ezpelaren sitsa (*Buxus sempervirens* - *Cydalima perspectalis*), adibidez, taxuzko hotzak ederki jipoitzen ditu eta bere biziraupena kolokan jarri, landareon hurrengo udaberriko izerdialdi berriko bizimodua lasaituz.

Hotzak baita ere gozamenak dakar. Aza jende, porru eta antzeko neguko barazkiek, hotz handiei aurre egiteko erreserbetarako pilatuta dituzten azukre konplexuak deslotu eta azukre arinagoak prestatzen dituzte izozteei aurre egiteko. Azukre horiek ederki antzemango ditugure aho sabaia. Izotzak pasatako barazkiak onenak direla esan ohi da eta sona handia izan dute Otxandio eta Oleta bezalako leku oso hotzetakoek.

Betor hotza, arren! Baratzea osatua eta mandio bete jaki eta edari pilatu ditugu udan eta udazkenean. Eta behar duenik bada, eska beza. ●

Igo ekologikora!
NAFARROAKO SALMENTA PUNTUEN
ETA JATETXE IRAUNKORREN SAREA

Kontsultatu hemen
Nafarroako saltokien
zerrenda

cpaen.org
navarraecologica.org

AITOR BASTARRIKA

“LANDAREEKIN ARROPA TINDATZEA DA NIRE OFIZIOA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Duela 30 bat urte ikasi zuen Aitor Bastarrika gipuzkoarrak landareekin eta bestelako naturako elementuekin tindaketak egiten, Guatemalan bizi zenean: “Han ikasi nuen landareekin tindatzen, eta gero Euskal Herrira itzuli eta hemengo landareekin probak egiten hasi nintzen”, azaldu du hastapena. Galtzerdiak, bufandak, eskularruak eta bestelako arropak tindatzen ditu, eta zuzeneko salmenta bidez merkaturatzen ditu gero. ‘Ecoprint’ edo estanzazio botanikoa ere egiten du: loreekin eta hostoekin galtzerdi, fular nahiz kamisetetan inprimazioak egitean datza.

MARROIA, HORIA, GRISA... EUSKAL HERRIKO KOLOREAK

Urte hauetan guztietan proba-errore bidez ikasi duela dio Bastarrikak, izan ere, Guatemalan zerabiltzaten landare asko ez ditugu gurean. “Ez dut maisurik izan honetan, nire kasa ikasten joan naiz, probak egiten, irakurtzen...”, dio.

Eta, proba horietan deskubritu du pixkanaka gure inguru hurbilean ditugun zein landarek eta naturako zein elementuk balio dezaketen tindaketak egiteko: asunarekin eta binorriarekin lortzen du kolore berdea, intxaurrekin kanpoko azalarekin marroia, zumakearekin grisa, rumexarekin eta granada azalarekin horia... “Horiek lortzen ditut bertako landareekin, horiek dira, nolabait, gure koloreak”, dio.

Gorriak, larrosak, urdinak eta beste pigmentu batzuk lortzeko, berriz, kanpoko landareetara jotzen du Bastarrikak. Esaterako, laranja otxar tindagaiekin (*rubia tinctorum*) lortzen du; gorri eta arrosa koloreak, berriz, Kanarietan bizi den kotxinilarekin; eta urdina, indigoarekin. “Landareekin eta elementu naturalekin tindatzeko ezinbestekoa da ehun naturalak erabiltzea, sintetikoek ez baitute ongi hartzen”, adierazi du. Algodoi, lihoz, kalamuz, artilez edo zetaz egindako arropa eta osagarriak erabiltzen ditu tindaketak egiteko.

SALMENTA ZUZENA ETA ONLINE DENDA

Eguberrietan Donostiako Frantzia Pasealekuko artisauen azokan parte hartzen du urtero Bastarrikak, eta egunero jartzen du postua bertan garai honetan. Eguberrietatik kanpo ere, Donostialdeko hainbat azokatan izaten da, baita Euskal Herriko nahiz kanpoko azoka ekologiko handiagoetan ere: Irungo Bioterra eta Bartzelonako eta Madrilgo Bioculturán, esaterako. “Duela 30 urte, honetan hasi nintzenean, inork ez zituen tindagai naturalak ezagutzen, oso arraroa zen, baina uste dut orain jende gehiago ari dela modu honetan tindatzen eta ezagunagoa dela”, gehitu du. Bere ize-na daraman webguneko dendaren bidez ere saltzen ditu arropak.

Tailerrak ere eman izan ditu Bastarrikak, baina nabarmentzen du ez duela horretarako leku aproposik, etxeko tailertxoan egiten baititu bere ekoizpenak. “Norbaitek herrian gune aproposik badu eta tailerren bat antolatu nahiko balu, egin genezake”, adierazi du. ●

Xentimoka pentsatzen dutenen **omenaldi laikoa**

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

noiz baino nobedade gehiago aurkeztu eta Landakotik kanpora beste gune bi berri estreinatu diren Durangoko Azokan, 60. edizio honetan, aparteko bi-hiru datuk ere sortu dute arreta korridoreetan, nahiz boz goran askorik ez diren esan. Bagenekiena baieztatu du Siadeco etxearen txosten berriak: sektore prekarioa da kulturgileena. Standedetan hamar orduz irribarrez egoten diren egileen %12 soilik bizi dira haien sorkuntza lanetatik, eta erdiarentzat, beraien diru sarreraren %20 edo gutxiago dator horretatik. Xentimoak badira asko, baina ez dira franko. “Kalderilla hutsa”, Joxe Azurmendik *Manifestu atzeratua*-n zioen moduan; xentimoka pentsatzen duen herria gara pentsalari handiaren begietan.

Diru apurretatik ez, eta sinbolismoetatik ere ezin daiteke bizi sortzailea. Baina bere burua katigatuta ikusten du hor, urtero Durangora joateaz ezin baitaiteke libratu. Hamar sortzailetik bederatzik uste du “garrantzi handikoa” zaiola Durangoko Azokara etortzea, nahiz gero, akaso, etekinik apenas izan. Baina gehien-gehienek diote “ikusgarritasuna” ematen die la Landakon egoteak, eta azoka osteko salmentetan nabaritzen omen du bitik

batek. Hortaz, erakusleihoan irribarretsu egotearen gatibu dira. Horiexek dira negozioaren fakturak. Azurmendi dixit: *Baina libre izatea / gauza ikaragarri zaila da / Marx bat / edo 1789 bat izan ez duen / herri zorigaiztokoarentzat. / Zerekin pagatu behar du? / Ikaragarri zaila da. / Ze guk ez daukagu / pirata pare bat, langile on batzuk, / muga txar gehiago eta holako zerbait / besterik.*

Euskarazko kulturaren plaza da Durangokoa, urterokoa, eta mesanotxeari dagokionez urteko bakarra bisitari askorentzat, zoritxarrez. Izan ere, Landakora joaten diren hamar lagunetatik bederatzik erosten dute zerbait, batez beste 55 euro xahutzen dituzte, eta horietatik bik egun horietan soilik erosten du libururik. Hau da, urte osoko erosketa Durangoko Azokan egiten duela, edo beste era batera esanda, kulturzale kostunbrismoa urtean hitzordu bakarrera mugatzen duela. Hori liburuei dagokienez. Diskoen kasuan, zifra are handiagoa da: bikoitza. Landakon diskorik erosi duen erdiak ez du gehiagorik erosi urte osoan. Ematen du zer pentsa horrek, baita geure buruari zer galde ere. Auzia ez da, ez, Durangoko Azokarena eta Gerediaga elkarterena. Orokorragoa eta oinarritzakoa da.

Betiko kontuak dira, baina gauzak asko aldatu dira azken 60 urteetan. Horiexek pentsatzen ikusi ditu Joxe Azurmendi (Zegama, Gipuzkoa, 1941 – Donostia, 2025) pentsalari eta filosofoak, eta behatu ditu, aztertu eta gogoetatu. Euskal Herriari eta euskal kulturari ekarpen handia egin dion pentsalari baldintzarik gabea da Azurmendi, kasu askotan ia ezkutuan igaro dena. Aurtengo Durangoko Azokan, azken egunean, omenaldia egin diote uztai-lean zendu zen gizonari. Gerediaga elkar-teak eta *Jakin*-ek antolatu dute ekimena. Ordu erdiren bueltako hiru hitzaldiren ostean, Miren Narbaizaren musikaz eta Ainara Lasaren irudiz jantzita, Azurmendiren 1968ko *Manifestu atzeratua* zatika leitu dute ondoko poeta hauek: Iñigo Astiz, Castillo Suarez, Leire Bilbao, Oihane Zuberola, Josu Landa, Iñigo Satrustegi eta Leire Vargas.

Pentsalari eta filosofo asko, pentsatzen eta pentsarazten jarri aurretik, poesian aritu izan dira. Horiex da Azurmendiren kasua; 30 urte betez geroztik, ez zuen gehiago horretan sakondu. 27 urte eskas zituen *Manifestu atzeratua* idatzi zuenean. Alemanian bizi zen, eta Suitzan ikasketak egiten zebilen adiskide bati bidali zion postaz, Ramon Saizarbitoria zelako bati.

Gazte eroak ziren, eta mundu berri bila zebiltzan, frankismotik ihesi, kontinente zaharrean zehar. Askatasun gosea zuten. Azurmendi berriz: *“Hauxe baita gure engainu azkenekoa: / libre izan nahia justifikatu behar dugula / pentsarazi digute / lehen kanpotik eta barrutik orain”*.

GALDEREN GIZONA

Sarri esan ohi da *Manifestu atzeratua*-k laburbildu dezakeela Azurmendiren ibilbide literario grinatsua. *Jakin*-eko Lorea Agirrek “poema fundazional” gisa deskribatu du: “Hor agertzen dira gerora, 60 urtetan, landu dituen gaiak, auziak eta galderak, kritikak eta ironia”. Agirrek oroitu moduan, galderak egitea zuen gogoko Azurmendik: “Erantzunak beti zirela inportanteak, baina bazioen inportanteagoa zela jakitea zein den uneko galdera, besteak beste, zer egingo dugun libertate, gose, herri eta gizatasun honekin, eta nora eramango dugun”. Gazterik utzi zuen poesia argitaratzea, sentitzen zuelako egiten zuena ez zegoela oso modan. “Berak zioen *poesia existentziala* egiten zuela, eta ez zuen sentitzen bere poemek Gabriel Arestiren eta Xabier Leteren bezainbesteko indarrik zutenik”, adierazi du Agirrek.

Poesia argitaratzea utzita, isilperago igaro bazen ere, ekinean segitu zuen beti. Konfiantza agertu zuen gazteekiko, belaunaldi berriekiko, eta erroturiko ideiak zalantzan fundamentuz jartzen zituztenekiko. Hala oroitu du *Jakin*-eko Haritz Azurmendik: “Euskararen aldeko hautu fundamental handia zuen, militante euskaltzale nekaezina zen, eta gazteongan konfiantza zuen; *Jakin*-ek Joxe Azurmendiri eskainitako ale berezian, eztabaida kide berriak hurbiltzeko, askotariko aholtsak biltzeko eta zilegitasuna aitortzeko lana egin dugu, berak egingo zukeen bezala, eta *Jakin*-en 60 urteotan egin duen bezala”. Ia ehun lagun bildu ditu *Jakin*-ek, askotariko aurpegi eta iritziak, guztiei enkargu bera eginda: Azurmendiri buruzko testu labur bat idaztea. Batzuk hitz lauz, besteek poemez edo irudiz egin dute. Egile gazteen presentzia nabarmena da.

Atzera ere *Manifestu atzeratua*-ren oihartzunak: *“Ta nork askatuko digu herria? / Zaharrak zahar dira / gazteak gaztegi. / Libertatea baino nahiago dute / ezkerre intelektualek. / Langileak eskolara ez baino / klasera hots egiten dituzte. / Artistak ederra sortzeko daude. Baina libertatea ez da eder, / ez dago sindikatzerik, / ez dago ezkerrean. / Etorkizunean dago”*.

Omenaldi goxoa egin dio *Jakin*-ek 269-270 zenbaki berezian, ale bikoitzean. Baina Azurmendiri ez ezik, belaunaldi osoa nahi izan dute goraipatu, eta transmisio eta zubi-lana egin egungo gazteekin, orduko haiek nahiko luketen eta egin duten gisara. Hala xe esan du Lorea Agirrek: “Belaunaldi horrek beti esan ohi zuen gerraosteko basamortuan umezurtz jaiotako belaunaldia zela haiena, zubiak eraikitzeko obsesioa izan duena, hala nola gurekin, etorri diren eta garen kulturagintzako eragileekin; eta hori da guk *Jakin*-etik egin nahi izan duguna”.

Hitzaldien ostean, Durangoko Azokako talaiara igo dira banan-banan belaunaldi askotako idazleak, Josu Landatik hasi eta Leire Vargaseraino. Zatika egin dute *Manifestu atzeratua*-ren irakurketa, goxo bezain indartsu leituta, Miren Narbaziaren giro-soinu atsegin eta barnerakoiaren laguntzaz, atzealde Aina Lasaren irudiek ilustratzen zutela. Amaierako txalo zaparradak bazuen ekinaldian parte harturikoei esker emateko asmoa, baina kontzienteki egin zaio txalo Joxe Azurmendiri, berak halako omenaldirik jasotzea gurako ez balu ere. ●



Pertsona normal bat Almandozen bisaiatik: kalamidade baten kontakizuna

Sasoi betean dago Koldo Almandoz: bere azken telesaila, *Zeru Ahoak*, Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta gero, pelikula berria grabatzen amaitu berri du, *Azken agurra*. “Pertsona xumeak” ekarriko ditu pantailara, pertsona “normalen” istorioa; “normal” gisa ulertzen bada hileta zibilen enpresa bat sortu duen gizon “enpresa-jabe” bat eta bere bekaduna, antropologia ikaslea bera. Kalamitate bat besterekin lotuko dituzte, edonoren bizilaguna izan daitekeen pertsonaia pantailaratuta. 2026ko “momenturen batean” estreinatuko dute pelikula.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Irungo (Gipuzkoa) industrialde bateko kale luze bat puntarik punta gurutzatu du Iñigo Azpitartek. Ordu eta erdi darama ibilbide bera egiten, behin eta berriro. Halako batean, “moztu!”, diotso Koldo Almandozek. Eta horrela, bukatu dute zuzendari donostiarraren pelikula berria, *Azken agurra*. Haien arteko lore sorta eta besarkada artean hartu dute ARGIA, azken grabaketa egunean. 2026ko “momenturen batean” ikusiko du argia pelikulak, oraindik zehaztu gabeko data batean. “Hori du ona txikian ekoizteak, ez dituzula presa horiek”, dio Almandozek. Hori, eta “jende xumearen istorioak” kontatu ahal izatea, “istorio normal” bat, edonor identifikatuta sentitu daitekeen horietakoa.

Etorkizun batean, Azpitarte Tomas bihurtuko da, eta behin eta berriro errepikatu duen bide hori, berak sortutako hileta zibilen enpresarako bidea. Tomas enpresa-sortzaile bat baita, enpresa jabe

peto-petoa; edo, behintzat, horrela ikusten du bere burua. Berez, kalamidade bat da, “tipo nahiko gorrotagarria”, Almandozen berbetan. Baina berdin dio, Tomasek bere burua asko estimatzen du, “guztiz garaikidea den” sindrome bat baitauka, inpostorearen sindromearen kontrakoa, Dunning-Kruger-en sindromea. Tomas da, azken finean, gizarte garaikidearen ispilua. “Denok dakigu guztiaz, gure iritzia balekoa da beti, gauza guztietara atrebizten gara... *Ni*-tasunak ematen digun harrotasun puntua duen pertsonai batetik abiatzen gara”, laburtu du zuzendariak.

Oraindik ezin dute ezer aurreratu, baina badiote Tomasi “zerbait” gertatuko zaio, eta leku guztietara oinez joan beharko duela. Non eta hiriaren kanpoaldeko industriagune batean, garraio publiko gutxi ezagutzen duten eremuan, hain justu. Eta filmari are puntu surrealistago bat gehitzeko, Tomasi laguntzaile bat egokitu diote: Sara (Izaro Nieto) antropologia ikasleak bertan

egin beharko ditu praktikak. Komediak ar-daztutako pelikula izaki, kalamitate bat bestearen atzetik zerrendatuko ditu, surrealismoaren eta muturreko normaltasunaren artean; trama txikiak harilkatzen, “baina trama txiki horiek oso handiak bihurtzen dira norberarengan”, dio Azpitartek.

Almandozen azken aldiko obsesioari erantzuten dio bukatu berri duen pelikulak. Ikustea gustatzen zaion zinea egitea gustuko duela aitortu du zuzendariak, pelikula handien epikatik urruti, diskurtso landu eta arrazoitua izatearen premiari iskin eginda. Nabari da bere begia lokalizazioen aukeraketan ere, eta nolabaiteko hari bat ikusi daiteke: *Oreina*-n (2018) Donostiako kanpoalde industrial eta Oria ibaia aukeratu zituen, *Hondar Ahoak*-en (2020) Ondarroako (Bizkaia) portu post-industrial, *Zeru Ahoak*-en (2025) Bilboko ibaiadarra, eta azken honetan, *Azken Agurra*-n, berriaz bueltatu da hiri kanpoaldeko indus-

triagunera. Argi dago, beraz, hiri bukoliko eta erromantikorik ez, “benetako” eszenatokiak nahi dituela bere pelikuletarako, jendea dabilen, jendeak irauten duen leku horiek. Bizitza dabilen leku horiek, azken finean.

CASTINGA, LEHENENGOAN

Lekuen aukeraketarekin bat doa akto-reena ere, ezin bestela. Erakutsi nahi baina ezinaren baitan mugitzen da Tomas, gizon arlote samarra. Ez da lehen aldia Azpitarte eta Almandozek elkarrekin lan egin dutena, zuzendari donostiarrak aurtan kaleratutako telesailan, *Zeru Ahoak*-en, ere azaltzen baita Azpitarte, guztiz paper ezberdin batean bada ere; eta zuzendariak ordutik zuen buruan berekin zer bait egitea. “*Zeru Ahoak* egin genuenean Iñigo begiz jo nuen. Landare poto bat eman nion, eta argazki batzuk egin nizkion, oraingo pelikula hau buruan neukala. Argazki horiek beti izan ditut buruan”, dio zuzendariak. Eta Azpitartek Almandozen erronkari baiezkkoa eman zion, eta zuzendariaren konfiantza eskertu du: “Aktore batentzat ez dago ezer aberasgarriagorik pertsona normal bat gorpuztea baino”.

Nietok, aldiz, lehen lan luzea du. Alegia, casting prozesua pasatu behar izan du filmara heltzeko; aktore orok gorroto duen prozesu hori. Almandozek berak ere aitortu du “oso gaizki” pasatzen duela castingetan, eta azken pelikula horretarako oso prozesu txikia baino ez zutela abiatu. Aurretik ere ezagutzen zuen Nietoren lana, eta, aukeraketa prozesua martxan jarri bazuen ere, intuizioari ere egin zion kasu, eta ez zuen zalantza egin.

GUTXIREKIN, ASKO

Pelikula txikia dela azpimarratu dute taldeko kideek. ETB eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du, baina grabaketaren atzean ez dago streaming bidezko plataforma bat bera ere. Horrek eragin die ohikoa baino lan intentsitate handiagoz lan egitea: baliabide murriztagoekin izanda, grabaketak “optimizatu” egin behar izan dituzte. Konparaziorako, ohiko grabaketa prozesua jarraitu izan balu, zazpi edo zortzi aste beharko lituzkete pelikularen grabaketetarako; beraiek, ordea, bostean bukatu dute. Alegia, denbora gutxi izan dute denerako: “Entseguetarako, zalantzetarako, haserrealdiak baretzeko tarterik ez. Gogorragoa egiten da”, dio Almandozek.

Horrenbeste baliabide ez izate horrek eraman ditu lanak zehatzago antolatzerara, baita bakoitzak bere ardurak hartzera ere. Intentsitate handiko grabaketa egunotan, ez dute nahi beste denbora izan eszena bakoitza mimoz lantzeko, baina horri erantzuten jakin dute lantaldeko kideek, hori dio Almandozek. Aktoreekin ere horrela izan da: “Egin dugu entsegua aurretik, baina gero asko jo behar izan dute intuiziora, ni ez naizelako egon askotan, eta beraiek ekarri dutenetik egin dugu asko”.

Mauka motzean hasi eta txamarra lodiarekin amaitu dute grabaketa; hori guztia bost asteren buruan. Horrela grabatzeak “badu bere magia”, horixe dio Almandozek; “bost aste irauten baditu bai, gehiago jada...”, erantzun Azpitartek. Bakoitzak bere “Vietnam” bizi izan du kamerren aurrean, eta denek egin dute beren lana, zorrotz, lehen “grabatzen!”-etik azken “moztu!”-raino. Azken eguna heldu zaienean, poza eta lasaitua nabari zaie, lanak ondo egin dituenak izan ohi duen patxada hori. Kazetariak agurtzearekin bat itzuli dira besarkadak, lore sortak; desmuntaiak beren esku horiek ere erreklamatzeko dituen artean, bederen. ●





Hitz gezidunak

KAFETEGI MASTA	DONE ERGEL, ZENTZU GUTXIKO	ITXARON	MUNIZIPAL ALFABETOKO LETRA	ZORO, ERGEL AREA	ARNAS EZAK HILA IXTEKO EKINTZA	ESKUZ ERABILI ZAKU EHUN
		GUDARIAREN LANBIDE UGARITASUN ATZIZKIA				
PERTSO- NAIAREN ABIZENA BEGIRALEA				OTOZ ... EZUSTEAN LEHEN BOKALA		
					MAHAI JOKO Zu	
OBATU ADITZAREN ERROA	GALIOA ALTZO					ZUZI Z. BARIK LERDETSUA
		EGOILIAR, BIZTANLE			GALDEZKA BALIO GUTXIKO DIRU ZAHAR	
BAITA SISTEMA OPERATIBOA						
	GIGA ASIAKO ESTATUA				URREA PERTSO- NAIAREN IZENA	URANIAO BALIORIK GABE
ITXAROTE URRINA HEDATZEN DUEN GAI			KILOGRAMOA ZEIN	GITARRA JOTZEKO PIEZA ITURBURU, IATORRI	SUFREA	ARANA A BARIK GEHIEGI
					LUZEA, GARAIA TELEBISTA	
ARTO OPIL ARTE EDO LITERATURA KLASEA			MASAILEZU- RRA OXIGENOA			
					JANARIRIK EZ HARTZEA	

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

2		6			9		5	
	8	3	4	2		1		6
		9			1	8		
1		4			2	7	8	
7	3						2	9
	6	2					4	1
	5	8		7				
	2		8	1	3	5		
				5		2		

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Nolatan.
2. Heldu, atxiki (bizkaieraz).
3. Trankil, bare.
4. Gipuzkoako udalerria.
5. Marra.



EBAZPENAK

8	7	2	9	5	6	1	4	3
4	9	5	3	1	8	7	2	6
3	1	6	4	7	2	8	5	9
1	4	3	5	6	7	2	9	8
6	2	9	8	4	1	5	3	7
5	8	5	7	3	6	9	4	1
2	3	1	9	5	6	7	4	8
5	8	3	4	2	7	1	9	6
7	1	6	3	8	9	4	5	2

V	U	V	R	V	B	V	O	R	E	N	E	G
V	L	I	V	R	T	V	M	O	L	V	L	
V	U	L	T	V	I	V	G	N	I	R	R	U
N	R	S	Z	K		O	I	V				
U	U	V						G		S	O	
L	I	D	I	V				E	R	E		
V	K	V	E					V	B		O	
I	U		I	H				V	G			
K	V	X		V	L	E	N	I	L	N	E	Z
N	V	O	L	O	V	V	O	L	N	V	F	
V	Z	L	I	R	V	D	G	V	G	V	H	
M		I	E		U	E		S		K		



Ezpatak zorrotz, oasi bat eraikitzeko

 LEIRE IKARAN

Honela dio Tatxersen kantu batek: “Merezi duzuna/ oasi bat hiri erdian/ Merezi duzuna lore etxea/ oasi bat lore etxea”. Nork ez du nahi etxe bat, lorez eta landarez beteta, eguzki izpiak sartzen diren horietakoa. Baina zein zaila den horrelako babesleku bat gaur egun, are gehiago hiri baten erdian. Zaila da, sinpleki, lotarako aterpe bat izatea. Egun gutxi dira Martuteneko (Donostia) Agustindarren Institutua izandakotik ehun pertsonatik gora kaleratu dituela Espainiako Poliziak, atxiloketak tarteko, nola ez. Etxebizitzaren problematikaren eta instituzioen utzikariaren aurrean, auzolanetik eragiten diharduten hainbat talde eta ekimen daude. Tartean dago Saretxe Etxebizitza Sindikatua, eta gaur, Orion, Elkartasun jaialdia antolatu dute.

Iritsi garenerako Olaia Inziarteren kontzertua hasia zegoen. Azken ilaratik entzun dugu, zeren ikusi, ez dugu ezer ikusi. Laurehun bat lagun izango ginen begira, eta segur aski erdiak aho batez abesten aritu dira kanta guztiak. Bakarririk egonda ere, eszenatokia betetzeko

duen gaitasunak harritu nau. Bere presentzia hutsa nahikoa da intentsitatearen zurrumbiloan sartzeko.

Azelerazio dosia gehitu zaio gauari Zaaf-en txanda heldu denean. Herriko taldearen bigarren kontzertua bada ere, nabari da taldekideak eroso ari direla publiko aurrean. Gitarren distortsioak eta oihu zakarrek hartu dute gaztetxea, kontzertuak iraun duen ordu erdian. Kalera-tu berri duten *Ihesaldiko Bakarriketak* (2025) diskoa osorik jo, eta Lysistrataren *Asylum* abestia ekarri dute eurenera. Gitarrista baten faltan, kontzertu txukuna jo dute oriotarrek.

Tatxersen txanda iritsi da, eta hirukoa oholtzaratu aurretik, lehen ilarak beteak daude, nabari da jendea honen zain zegoela. *Audio luze bat* kantuarekin hastea nahikoa izan da publikoa mugimenduan jartzeko. Ostean etorri da *Bihotz Motel*. Entzun genuen lehen alditik lau urte pasatu diren arren, ez dugu letra ahaztu. Izan ere, Tatxersekoek oso ondo egiten duten gauza bat bada himnoak sortu eta melodia itsaskorrekin batzea. Azken diskoan,

ELKARTASUN JAIALDIA

TALDEAK: Olaia Inziarte,
Zaaf eta Tatxers.

NON: Orioko Etxeluze Gaztetxean.

NOIZ: Azaroaren 29an.


gainera, soinuan beste salto bat egin dutela iruditzen zait: Oi! musikatik aldendu dira, sintetizadoreek lekua hartzeko. Aukera baduzue, entzun diskoa hasieratik amaierara, musikatik harago, fantasiaz betetako mundu batean barneratu nahi baikaitu taldeak: ezpatak, munstroak, guda, erorketak eta sekretuak.

Oasi bat jo ostean etorri dira *Goizean Oskorri* eta *Etsaiak Agurtzen*. Hala, hasi diren maneran bukatu dute kontzertua, himno bat bestearen atzetik, guztiok, guda dantza batean bezala, hau abesten amaitzeko: “Tiro egin didaten horien bala denak gordeta dauzkatz/ Ez legoke gaizki denak urtzea ezpata bat egiteko/ Ezpata zorrotz bat/ Edozein bala bitan ebakiko luke.” Agian, hitz horiek hartuta, gogoan hartu dezakegu gaurkoa ez dela festa hutsa eta putre forma hartzen duten munstro handi horien aurrean ezpatak zorrotz izan behar ditugula. Etsaiak ez diolako inoiz utzi irabazteari, baina besteok ere ez antolatzeari; eta ezpatak goian ditugula agurtuko dugu etsaia, hemen jarraitzen dugula erakusteko. ●



LIBURUA

Tarrat eta teink



WIKIPEDIA

JOSTORRATZA ETA HARIA

YOLANDA ARRIETA

SUSA, 2025

AMAIA ALVAREZ URIA

Josten ikasteko eskuliburua. Hori da haurdun dagoen emakume batek idatzi duena bere alabarentzat. 18 urte betetzean emango dio, bizitzan zehar josi eta desjosi beharko dituen jantziak egokitu ditzan. Baina hori baino gehiago da liburu hau. Historiaurrean hasiko da, Miren eta Txomin edo María eta Domingo izango dira protagonistak, mende askoan, orratza eta haria hartuko dituztenak euren garaian dituzten oihalekin jantzeko. Belaunaldi batek hurrengoari pasatzen dion jantzia izango da hari nagusia. Jantzi horri konponketak egingo dizkiote eta ondorengoek haien gorputz eta izaeretara moldatuko dituzte.

97. Irun Hiria Saria irabazita, 2001ean argitaratu zen lehen aldiz Yolanda Arrietaren liburu hau Alberdanian: *Jostorratza*

eta haria. Gazte literaturatzat jo zen eta ez zuen zabalkunde handirik izan. Hori dela eta, oharkabean pasatu zen lan berezi hau. Oraingoan, Iratxe Retolazaren hitzaurrearekin eta Ainara Azpiatzaren azalarekin plazaratu da.

"Zer gara? Berez gurekin datorrena ala bizitzan zehar egiten goazena?" galderak daude idazlearen sarrera-hitzen hasieran. Narrazioa ordea honela hasten da: "Demagun urteak zuntza direla. Eta, denbora, zuntz horrexekin egindako oihala".

Genealogia bat egiten da, aitita-ama-mak, aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak agertuko dira, haien bizitzaren zertzeladak ezagutuko ditu irakurleak eta ondareari buruzko gogoeta egiteko aukera emango digu testuak. Izan ere, zer jasotzen dugu aurrekoengandik? Zer

egiten dugu horrekin? Zer utziko diegu ondorengoei?

Bestalde, arropak eta joskintza izango dira gure historiara hurbiltzeko modua. Ingelesek esango lukete *herstory* egin duela Arrietak liburu honetan, fikziotik eta jakintza (ustez) femenino bati balioa emanda. Izan ere, joskintza emakumeen kontua dela sinesten da gaur egun, eta horren ondorioz, ez da aintzat hartzen, ez du prestigiorik. Baina hori ilustraziotik aurrera izan da, Clare Hunterren *Hilos de vida* (Bizitzaren hariak) liburuan irakur daitekeenez. Horrez gain, Hunterrek dio jostean memoria gordetzen dela, gorputzaren eta emozioen bidez kultura eta komunitatea aldarrikatzen dela eta tradizioa komunikatzen dela. Hori da, hain zuzen, lan honetan aurkituko duzuna. ●



IKUS-ENTZUNEZKOAK

Deseraiki, beti



LO INMEDIATO

CABRÓN DANDY

AUTOEKOIZPENA, 2025

IKER BARANDIARAN

Egin beharrekoa da eta laster gainera, gehiago itxaron gabe. Bada ordua gizonok gizartea aldatzeko daukagun arduraz jabetzeko eta horren alde gure maskulinitatea ezbaian jarri eta aztertzeko. Ezin diegu gure pribilegioei eutsi eta ez-ikusia egiteagatik gizartearen erdia baldintzatuta utzi. Badaukagu lana egiteko eta bada ordua deseraikitzeke.

Amurrioko Luis Vil zinemagile, musikari eta fabrikako langile nekaezinaren ibilbideak ere badu hortik, izateko eta sortzeko deseraikitzetik.

1990eko hamarkada hasieran gurean garaian inork gutxi bezala rock australiarra eta iluna erreibindikatu zituen freskotasun handiz Ironic Cancer

Phobia, Triturbo eta bestelako taldeekin. Eta ordutik ez du atsedetik hartu: Luis Vil & La Mala Crianza, & La Brigada Politico-Social eta abar. Antza Melbourne-Amurrio senidetasunak luze dirau eta orain gutxi arte Tex Perkins eta Bad Seeds-en aintziran ere aurkitu izan dugu.

Orain, baina, beste buelta berri eta espontaneo batean aspaldiko lagunak dituen zakur zaharrak batu (Drellas, Flying Pigs...) eta Cabrón Dandy sortu dute. Zertarako? Kokoteraino jartzen dituzten horiek guztiak iraintzeko eta artifiziorik gabeko rock potentia egi-teko. Izan ere, diskoa entsegu lokalean grabatuta dago, bere horretan, oinarri-koarekin. Eta horrelakoa da emaitza.

La señal punk-rock pisutsu eta rockeroa da, parekorik ez daukan ahots sarkor eta sendoarekin. *Juez y parte* kantutzarrak, melodikoa bada ere, badauka The Stooges-en arrisku hori. *El asco* tempo erdiko rocka da. *Adiestramiento encubierto*-k 1980ko hamarkadako esentzia gordetzen du. *Anacrónicos* beste *hit!* bat da, 1977ko punketik gogo edaten duena. *Lo inmediato*-k badu abiadura handiko pub-rock-etik eta oso *gitarreroa* da. *Algo turbio* ere azalean gelditzen da, riff gogoangarriak dituen eztanda. *Norma vaticana* da rock-and-rollaren eta kaleko rock-aren bidegurutzea. *Andróginos Z*, intentsitatea daukan rock melodikoa; eta, azkenik, *Matar al padre*, asmo adierazpen argia. ●

Gazteei sare sozialak debekatzeaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Irakurleei oharra: artikulua honen hasiera rolo hutsa da, baina gera zaitetze bukaeraraino, espero ez duzen *plot twist* bat dauka-eta.

Espainiako Kongresuan ordezkariak daukan alderdi politiko batek joan den astean proposatu zuen 16 urte baino gutxiago dituzten gazteei sare soziale-tako sarbidea debekatzea. Neurriak bere salbuespentxoak izango lituzke, baina, nolanahi ere, ideia nagusia argi: 16 bete arte, sare sozialik ez.

Proposamen gehiago ere egin zituen alderdi horrek, adibidez “deskantsu digitala” bermatzeko ordutegia ezartzea 22:00etatik 8:00etara eta, hori bete ahal izateko, plataforma digitalei exigentziak estutzea. Orain egiten ez dituzten gauza asko egiten hasi beharko lukete: sareetan argitaratzen diren edukiak zorrotzago eta denek ikusteko moduan etiketatu, adin txikikoak beren plataformetan sartzen ote diren kontrolatu, haien osasunari eragin diezaioketen edukiak azkar detektatu; baita ziber-*bullynga* anoni-moki eta segurtasunez salatzeke meka-nismoak martxan jarri ere.

Ez ziren horretan geratu alderdi politikoaren proposamenak. “Scroll amai-gabearen” aurkako neurriak ere eskatu zituen, alegia, plataformak ez daitezela diseinatu adikzioa sortzeko xedez. Gazteak algoritmo manipulatzailleetatik babesteko ere eskatu du, horien bitartez plataformak pertsuasio-tresna indartsuak bihurtu baitira.

Legedia zorroztea ere alderdi politiko horren planetan dago, suizidioa bultzatzen duten edukiak ekoiztu edo zabaltzen dituztenen aurka, baita heriotza edo kalte larriak eragin ditzaketen “erronka biralak” martxan jartzen dituztenak geldiarazteko ere. Azkena, baina ez herrena, aipatutako alderdi

politikoak nahi du legeak kontuan har ditzala adimen artifizial bidez sorturiko errepresentazio bisualak ere haur-pornografia gisa.

Gauza horiek irakurtzen ari nintzen, beraz. Eta pentsatzen nahiko zentzuzkoak iruditzen zaizkidala gehienak. Ur-tetan inolako kontrolik gabe hazi diren tekno-piztien jarduera pixka bat erregulatzeko behintzat balioko luketela. Beharbada ikasi dugula zerbait 2000ko hamarkadaren amaieratik hona garuna frijitu diguten aparailuen eta platafor-men arriskuez. Eta badela garaia zerbait egiteko belaunaldi berriak hain nomofobo izan ez daitezen.

Baina traumatizatuta nago. Ezin dut burutik kendu proposamen horiek alderdi politiko jakin batek egin dituela. Alderdi bat, zeinaren kontu honetarako bozeramailearen izena entzute hutsak aski izan beharko lukeen “*vade retro* pijo faxistak!” aldarrika hasteko. Cuca baitu izena –Cuca Gamarra, alegia–, sareetan ordena pixka bat jartzera datorren alderdiko kideak. PP alderdiko kideak, honezkero konturatuko zinetenez.

Benetan, ez dakit nola gertatu zaidan hau. Egun batean molatzen nuen eta hurrengoan Cucaren kuadrillan ikusi dut nire burua, Pocholo, Pitita, Curri eta konpainiarekin. Altxa eskua berdin sentitu bazara.

Gure adikzio teknologikoak gutxitze-ko debatea eskuin postfrankistak hege-monizatu ez dezan, bide bakarra ikus-ten dut oraintxe bertan: gizarte hobe batean sinesten duten indar parlamen-tario eta estraparlamentarioei dei egi-ten diet lerro hauetatik, PPren apustua berdindu bakarrik ez, hordagoa ere jo dezaten. Sare sozial komertzial guztiak ixteko eskatu ezazue eta alternatiba li-bre eta federatuak proposatu gazteen-tzat –Mastodon, Pixelfed, Peertube...–. Edo, gutxien-gutxienez, hasi zuek beste aukera horiek erabiltzen, ze ni Cucare-kin kontu honetan bat etortzea kezka-garria da –hartu dut zita psikologoan, lasai–, baina Elonen agur nazia eta gero X-en xitheatzen jarraitzen duzuela ikus-teak pentsarazten dit ez dagoela inor bolantean eta urtea bukatu baino lehen #EsanBeharNuen. ●



(H)ILBELTZA
EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA
BAZTAN
2026ko ILBELTZAREN 19tik 25erat

ELIKATU ZURE NORTASUNA

Elikadura ez da soilik beharrizana asetzeko bidea,
nortasun kolektibo baten isla baizik.

Kulturaren, euskararen, paisaiaren eta lehen sektorearen zaintzak
gure herriari eusten diote eta gure bizimoduaren parte dira.

Basatxerri
Aula hutakoa baserri txertia
Cerdo de usuario criado en libertad

KOFRADIA
~ Itsas Etxea

GARLAN
DESDE 1986tik
Lekaleak
legumbres

Udabe
EUSKAL HERRIAK BIZIRIK


ARROYABE
• BERMEO 1898 •

Km0
baserria


euskaber


GURE
EZTIA

udapa

Sal de Añana
Añanako Gatza

euskal
sagardoa
Sidra del País Vasco


LumaGorri
BERTAKOA · BETIKOA · BASERRIKOA

BARRENETXE
bertoko barazkiak · 1980